


HEDABIDEAK

Euskararen berreskuratzea III

Garabide Elkarte





DVD honetan, euskal hedabideak sortzerakoan izandako motibazioak, arazoak eta lorpenak biltzen saiatu gara, protagonista izan zirenei hitza emanez.

Egilea: Garabide Elkartea

Jose Arana, 13. 20540 Eskoriatza. Gipuzkoa.

Tel: 943250397.

www.garabide.org / info@garabide.org

Koordinatzailea: Alberto Barandiaran

Kolaboratzaileak: Lorea Agirre, Miren Artetxe, Andoni Barreña,
Elixabete Garmendia, Iñigo Iñurrategi, Urko Kolomo, Xabier Letona,
Jon Sarasua, Aitor Zuberogitia.

Diseinua:  komunikakzioa

Inprenta: Gertu

ISBN: 978-84-613-6836-5

Lege gordailua: SS-449-2010



ASKE ZARA:

- Lan hau kopia, banatu eta jendaurrean hedatzeko
- Lan eratorriak egiteko

BALDINTZA HAUETAN:

- ① **Aitortu:** Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak zehaztutako eran (baina ez aditzera eman ez haien babesa duzunik edo haiek obraren erabilera hori babesten dutenik).
- ② **Ez merkataritzarako:** Ezin duzu lan hau merkataritza xedetarako erabili.
- ③ **Partekatu baimen beraren arabera:** Lan hau aldatzen baldin baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu, sortutako lana banatu dezakezu soil-soilik baimen honen berdin-berdineko baten mende.



HEDABIDEAK

Euskararen berreskuratzea III

Koordinatzailea: Alberto Barandiaran

**garabide
erebepiq**



AURKIBIDEA

Hitzaurrea	06
	
Sarrera.....	11
Hizkuntz komunitate ezberdinak	12
Hizkuntzaren zentraltasuna	15
Komunikabideen sorrera	17
	
Euskal prentsaren historia txikia	21
<i>Eskualduna</i> eta Goitino.....	23
Azkue eta Kirikiño	25
Prensa politikoa garatzen.....	26
Euskararentzat espazio berriak: <i>Argia</i>	27
Egunkaria, amets.....	29
Euskal prentsa eta elebitasuna.....	31
Elebitasun orekatuaren mitoa.....	33
Egunkaria Sortzen	35
Tokiko hedabideen arrakasta.....	37
Euskara elkarteen eredia	39
Hedabideetako euskara.....	42
	
Euskal ikus entzunezkoak eta Internet.....	45
Telebista	48
Internet.....	51
	
Gaur egungo euskal komunikabideak.....	55
	
Sintesia: gako batzuk.....	63
	
Bibliografia	66
	

HITZAURREA

Munduko beste hizkuntza gutxitu batzuen ispiluaren aurrean jartzeko orrazten hasi ginenetik, gure buruaren irudiaz ere zerbait gehiago ikasten ari gara. Niri behintzat, lehen baino ederragoa iruditzen zait gure aurpegia, eta lehen baino akats nahiz zimur gehiagoduna ere bai.

Iragan ilunean hainbeste mendez iraun izanaren gakoek ihes egiten digutenez, gure bizialdian ezagutu dugun ahaleginaren gakoei antzematen saiatu behar. Bai, bost hamarralditan ekin-aroa izan du gure hizkuntza komunitateak. Aro horri begira jarrita, euskaltasunaren bide egoskor honetan hainbat giltzarri ikus ditzakegu. Gogo-aldarreak edo emozionalitateak izan duen garrantziaz ohartu gara. Edo corpusean, hizkuntzaren gorputzean, batasun-sena eta terminologia garatzeko kuraia ekarri digun onuraz. Edo kulturgintzan jarraidura eta irekiduraren arteko oreka dinamikoan jardutea zeinen konplexua baina bizigarria den ikusi dugu. Edo hezkuntzan, ikasi dugu jatorrizko hizkuntzaren hegemonia irekian oinarritutako ereduak sortzen dituela euskal hiztun osoak, osoak eta elebidun nahiz eleaniztunak.

Mende berriko ganduari begiratuta, *oh gu hemen, bidean galduak* kanta dezakegu oraindik ere. Baina emandako pausoei begiratzek errazago egiten du iparra sortzeko indarra berrasmatzea.

Beste kontinenteetako eragileekin esperientzia-trukean ari garelarik, euskararen ahalegin-aro moderno honetako bost lerro azpimarratzen ditugu, beste alor batzuk gutxietsi gabe, estrategiak sortzeko lehen eskema sinple moduan: corpora, hezkuntza, hedabideak, kultur sorkuntza eta familia transmisioa. Hedabideen gaia ezinbestean agertzen da euskararen garabideen artean. Eta aurrera begira ere, hala izateko itxura du: hedabideak hizkuntzaren bizi-indarra berritzeko ahalegin-lerro nagusietakoa izango dira.

Zer egin du euskal komunitateak hedabideen alor honetan? Hasteko, adi egon. Hamarraldi bakoitzeko aukerei eta beharrei adi egon. Euskaraz egin zitekeena amestu, antolatu eta ekin-tzara pasa. Badut arrangura gauza batzuetan ez garelako behar bezain adi ibili —tokiko telebisten esparrua birjin zegoenean urte preziatu batzuk galdu genituen bailara nagusietan aurrea hartzeko, edota telebista eta irrati eskaintza pluralagoa anto-latze biderik ez dugu sortu azken bi hamarraldietan—. Baina atzera begiratuta, beste ezeren gainetik, aukera berrietara adi dagoen komunitate bat ageri da Alberto Barandiaranek eginda-ko sintesi mamitsuan.

Ametz horren egintzan ibili direnak, batzuk *kamikazeak* izan dira, beren bizitza baldintzatu duten pertsona bakan determi-nazio handikoak. Askotan, pertsona hauez gain herri-ekimene-ko elkarte eta sareek sortu dituzte helburuak eta bitartekoak, edo hiztun komunitatearen taupadari begiratu dieten bestelako erakundeak. Beste batzuetan, erakunde publikoetatik heldu zaie hedabideei. Denen arteko lankidetza behar izan da, gehienetan, desafioei aurre egiteko.

Munduko hizkuntza komunitateei begira idatzi du Barandiaranek gure alor honen sintesia. Mende honetan sortzen ari diren belaunaldi berrien joerei eta eskuan izango dituzten tresnei adi bagaude, ondorio batera irits gaitezke: komunikazio antola-tuaren alor zabalean pausoak ematen ez dituzten hizkuntzek etorkizun zaila dute. Horretan pausoak ematen dituzten hiz-kuntzek aurrerabide biziagoa izango dute. Honetan hamarraldi eta mendeetako desabantaila dute kontinenteetako jatorrizko hizkuntza gehienek. Baina bidelasterrak hartzeko aukera ere bada: inoiz baino eskuragarriagoa da komunikazio-teknologia, eta hiztun komunitateetan badira berau ezagutzen duten gazte multzoak. Internet sareak, gainera, irudikatu gabeko ahalbi-


HITZAURREA

deak sortzen ditu handiarentzat bezala txikiarentzat. Geroa idazteko dago jatorrizko hizkuntzen hedabideen munduan.

Albo-eragin handiak ditu alor honek. Hedabideetarako hizkera bera ere, beste hizkera askoren arragoa da. Hizkuntzak, gure kultura eta luraren mundu sakona mintzatzeaz gain, herri guztien mundu zabala ere mintzatu behar du orain. Edo mintzatzeko aukera dauka, horretarako prestatzen bada. Eta horretarako, hizkuntzak ere zabaldu egin behar du, 'zabaldu' hitzaren bi adieretan: ireki eta zabalagotu.

Ez da alor makala hedabideena, kontinente guztietako jatorrizko hizkuntzentzat. *Alor* hitza nekazaritzako lurretik dator euskararen kasuan, beste hizkuntza askotan bezala. Alde handiko lurak daude, euria ez da denentzat berdina, makinek eta kimikak astindu dute munduko nekazaritza, egoeraren desoreka gero eta handiagoa da. Baina badira lege batzuk lehengoak. Ereiten duenak jasoko du.

Jon Sarasua



SARRERA

Hedabideak dira, gaur egun, hizkuntzaren barne bizitza eta kohesioa erakusteko tresnarik eraginkorrenetakoak. Hizkuntz komunitate baten partaideen kultura ekoizpenak argira ateratzeko leihoak, hizkuntzaren beraren bizitasunaren isla, munduarekin komunitate horrek nahi duen harreman motaren neurtzaileak, eta, batez ere, hiztunen arteko hartu emanaren sakontasun eta mailaren ziurtagiriak. Hedabideen bidez komunitateek elkarren berri izaten dute, eta hedabideen bidez haien buruaren berri ematen diote munduari. Hedabideen garrantzia, horregatik, funtsezkoa da hizkuntzen berreskuratze prozesuetan. Leiho zabal bat direlako: hor ikusten dugulako gure aurpegia, eta hor ikusten gaituztelako.

Gainera, ez da gutxietsi behar hedabideen eragin soziala, munduari buruzko ikuspegi zehatza zabaltzeko duten indarra, topikoak eta estereotipoak finkatzeko berezkoa duten gaitasuna. Mundua, neurri batean, hedabideen arabera moldatzen da. Interneten hedatze erabatekoak ohiko komunikabideen garrantzia apaldu badu ere —telebistak edo paperezko prentsak birmoldaketa gogorrari aurre egin beharko diote datozen urteetan—, esan daiteke gauzak,

alde horretatik, ez direla asko aldatu. Komunikatzeko modua aldatu da, besterik ez. Azken batean, Internet bera ere komunikabide erraldoi gisa ikustera ohitu beharra dago. Hedabide orotariko, aske izan nahi eta antzeman ezina, baina hedabidea. Eta hizkuntz komunitate bakoitzeko hiztunek beste erronka bat dute hor, norbere hizkuntzak sare erraldoian bere tokia izan dezan.

Hainbat adituk, batasunerako eta uniformetasunerako eragin handia aitortu diete hedabideei maila ideologiko, kultural eta sozialean, eta antzinako gizarteetan mitoek betetzen zuten paper integratzailea antzeman diete gaur egungo gizartean. Egunkariak, telebistak, irratiak, errealtatearen interpretazio periodiko bat baino zerbait gehiago dira: errealtatearen eraikuntza dira, eraikuntza bateratua.

Hizkuntz komunitate txiki askotan hedabide propioak ez izatea galga izan da hizkuntzaren bizitasunerako. Komunitate hegemonikoetan hizkuntzek, hedabideei esker, izan duten bizkortzerik, behintzat, ez dute izan. Badirudi zaila dela zientifikoki frogatzea zein diren hedabideen erabilaren ondorioak, hizkuntzaren estatuserako, baina sozio-

linguistikak onartuta dauka hedabideek aukerak ematen dizkietela hitzunei beren buruaren errepresentazio publiko hori kontrolatzeko, komunitate bereko beste kideen ideiak, ikuspegiak eta arazoak ezagutzeko, eta Gu-aren ideia komunitate horren baitan txertatzeko.

Bestalde, hedabideetako erabilera ere funtsezkoa da, era berean, hizkuntza arautzeko, trinkotzeko eta sendotzeko. Esparru komunikatibo berriak etengabe sortzen ari dira, edo zeudenak etengabe aldatzen ari dira, eta horrek etengabeko doikuntza exijitzen dio hizkuntzari eta, ondorioz, hiltunari ere bai. Hedabideak, beraz, hizkuntza garatzeko gune apartak dira, onerako eta txarrerako, hizkuntza-
ren finkapenerako zein narriadurarako. Esan daiteke hedabideak direla hizkuntza-
ren maisu nagusiak, eta baldin eta egia bada kultura garrantzitsuagoa dela herri moderno baten jarraipena ziurtatzeko edozein armada baino, egia da, halaber, hizkuntza ezegonkor baten gainean ezin dela kultura egonkorrik eraiki. Hizkuntzari egonkortasun hori ematearen ardura nagusienetako hedabideek daukate.

Uniformetasun horren garrantzia bereziki azpimarratzekoa da batasun arazoak dituzten hizkuntzen kasuan. Esate baterako, Espainiako eta Hego Amerika nahiz Ertamerikako herrien hizkuntz berezitasunen gainetik, espainierari eusteko orduan hedabideen zeregina funtsezkoa izan da. Badira ikerketak diotenak hedabideen hizkuntz eragina hezkuntza sistemak duena baino are

handiagoa dela. Alegia, askotan bereziki irakaskuntzari erreparatu bazaio ere, hedabideak oso garrantzitsuak direla hizkuntza-
ren berreskurapenerako, eta hizkuntza sendotzeko eta trinkotzeko. Eskolak bezainbeste gutxienez.

Euskararen kasuan, aspaldian azpimarratu izan da hedabideen garrantzi hori, eta esan ere esan izan da XXI. mendeko euskara komunikabideek finkatuko dutela eta, horregatik, irratian, telebistan, egunkarietan eta Interneten nagusituko den euskara hori euskal hiltunengan ere nagusituko denez, hor dagoela etorkizuna.

Hizkuntz komunitate ezberdinak

Baina egoera asko eta oso ezberdinak daude, noski, hizkuntz komunitateen arabera. Nolako hedabideak behar ditu euskaraz bizi den komunitateak? Nolakoak, kitxuz bizi denak? Nolakoak Finlandia iparraldeko inuitek? Eta Afrika iparraldeko amazighek? Kontuan hartu behar baita alde handia dagoela komunitate bakoitzak bere hizkuntzari ematen dion nagusitasun, zentraltasun eta garrantziari begiratuz gero. Badira komunitate trinkoak beren burua naziotzat daukatenak; beste batzuk, aldiz, beste estatu batean existitzen



diren komunitateekin lotuta sentitzen dira kulturalki eta linguistikoki. Badira, halaber, gutxiengo sentitzen direnak estatu baten barruan, estatu horren hiritar, besterik ez. Eta komunitatea nolakoa, hedabideen premia ere halakoa.

Azken ereduko komunitateen kasuan, esaterako Italian bizi den albaniar gutxiengoaren kasuan (hau da, beste estatu edo beste kultura baten barruan sentitzen direnen kasuan), tokiko komunikabideak egokiak izan daitezke, talde linguistiko hori ez delako maila lokalaz beste esparruetan garatzen ahal. Bigarren kasuan, estatu batean baino gehiagotan mintzatzen diren komunitateen kasuan, tokiko komuni-

kabideak hedabide nazionalekin osatzea komenigarria izan liteke.

Hori ez ezik, komunitate barruko alfabetizazio maila oso kontuan hartzekoa da komunikabideetan pentsatu baino lehenago. Batez ere, alfabetizazio hori ez denean iristen estatuko hizkuntzan alfabetatutakoen mailara. Arazo hori bera aurki dezakegu hizkuntza hegemonikoaren irakaskuntzaz gain, beste hizkuntzaren irakaskuntza ziurtatuta dagoen tokietan ere, askotan, aurreko belaunaldiak ez direlako beren eguneroko hizkuntzan alfabetatu. Edo alfabetatu zirenean ez zegoelako prestakuntza berezitu eta goi mailakorik beren hizkuntzan. Edo laneko hizkuntza ez delako etxeko hizkuntza.

Edo, azken batean, hizkuntza gutxituak ez duelako hizkuntza hegemonikoaren presentzia eta agerpen bera inguru tekniko edo publikoetan.

Hizkuntza hegemoniko edo estatu hizkuntzen ondoan bertako hizkuntzak sustatu eta babesteko lan gehien Europan egin da azken mendeen, eta hor eman izan zaie hedabideei inon baino garrantzi handiagoa. Eta hor, zenbait hizkuntza komunitatetan, behinik behin, bertako komunikabideak sustatzeko egindako lanaren emaitza begi bistakoa da. Esate baterako: Katalunian, 80ko hamarkadan, urrats handia egin zen bertako komunikabideek gaztelania baztertu zutenean, eta katalana erabiltzen hasi zirenean prentsa idatzian zein irrati edo telebistan. Urrats horren arrakastarekin adoretuta, estatuko hizkuntzan, kasu honetan espainieraz, argitaratutako beste hedabideekin aurrez aurre lehiatzeko ahaleginak egin ziren, eta produktu berezituak argitaratzen hasi ziren. Bestetik, espainieraz kale-ratzen ziren komunikabide handietan bertako hizkuntza sartzeko edo estatuko prentsak betetzen ez zituen eremuak bereganatzeko kanpainak ere antolatuta ziren. Borroka honen azken mugarrigisa, azpimarratzekoa da azken urteotan Kataluniako bi egunkari nagusiek katalanezko bertsioak ateratzeari ekin diotela. Eta gaztelaniazko bertsioak baino gehiago saltzen dituzte biek ala biek.

Europako hizkuntz gutxituen begira-tokiak, Mercator zentroak, Europako errealtatea aztertzen du, eta 70eko

hamarkadaz geroztik egin diren ekarpenak azpimarratu ditu. Esperientziak oso desberdinak dira, tokiaren eta hizkuntzaren estatusaren arabera. Galesen, esaterako, bertako hedabideak sustatzeari begira egin dute ahalegin handiena, baina Eskozian ingelesezko egunkarietan artikuluak gaelikoz argitaratzera mugatu dira. Irlandan egoera askoz okerragoa da, eta Britainian nazio osorako argitalpen txikiak daude. Okzitania, Frantziako Hegoaldean, ele bietan argitaratzen dira hainbat komunikabide. *Lo País Gascon* aldizkarian, esaterako, frantsesez agertzen diren testuak Okzitaniari buruzkoak dira. Okzitaniaraz argitaratzen direnek, berri, edozer gai jorratzen dute. Gauza bera gertatzen da Alsazian, Frantziako iparraldean.

Alemanian, Italian, Danimarkan edo Finlandian bizi diren hizkuntz komunitateen egoera askotarikoa da, baina esan daiteke ia denetan daudela tokian tokiko hizkuntza gutxituetan argitaratzen diren komunikabideak. Tiradak, arrakastak eta eraginak oso lotuta daude komunitatearen beraren indar eta kemenarekin. Mercator zentroko teknikariek garrantzia itzela ematen diote, nolanahi ere, hedabideei, kasu batzuetan komunikabideak beraiek direlako hizkuntz komunitateko kideek elkarrekin harremanak izateko dauzkaten gune garrantzitsuenak. Horregatik, funtsezkoak dira hizkuntzaren bizirau-penerako: egotea bezain erabakigarria da hedabiderik ez egotea.

Hizkuntzaren zentraltasuna

Egoera bestelakoa da munduko beste toki askotan, bistan da. Hego Amerika-ko komunitate gehienetan, esaterako, hizkuntzak ez dauka Europako kultur tradizioan daukan zentraltasuna. Europan ezberdintasun etnikoak lausotu egin dira, edo galdu egin dute XIX. mendean eduki zuten protagonismoa, besteak beste Europako azken mendearen historia horixe izan delako, etnizitatetik ihes egiteko ahalegin etengabe eta gorabeheratsua; taldea baino, norbanakoa lehenesteko joera. Etnizitate edo komunitatearen zentzua

estatuek bereganatu zuten aspaldian. Eta, hori gabe, partikularitasunak azpimarratzeko aukera ia bakarra hizkuntzen bidez izan da. Hizkuntzak hartu du, beraz, taldetasunaren aldarrikapenaren nagusitasuna.

Baina beste inguru batzuetan etnizitateari buruzko eztabaidak oraindik oso azpimarratzekoak dira, eta oso garai-
kideak. Eta, horregatik, gaia beharbada konplexuagoa da han, ohiko hedabideetan komunitate horiek ez daudelako bakarrik linguistikoki baztertuta; hor, kulturaren beste osagarriak ere baztertuta geratzen dira hedabideetan, eta ohiturak, kosmobisioa, folklorea, aspaldiko harreman motak, lurraldearekiko atxikimendua, guztia geratzen da foku nagusitik kanpo. Beharbada horregatik



dira oraindik garrantzitsuagoak eta premiazkoagoak hedabideak sortzeko ahaleginak.

Baieztapen honek ez luke, nolana ere, inor itsutu behar. Egia da Hego Amerikako hainbat komunitatetan, senidetarunak edo lurraldearekiko atxikimenduak hizkuntzak baino pisu handiagoa dutela komunitatea definitzeko unean, baina ez da gezurra komunitate txikien menpekotasuna eta asimilazioa areagotu egiten dela kultura horren berri hizkuntza hegemonikoen bidez eman nahi denean. Partikularitasunak ezabatzen dira, berezitasunak desagertzen. Dena homogeneizatzen da hizkuntza hegemonikoaren ore nagusian. Hori dela eta, etorkizunaz hitz egin nahi baldin bada, komunitate orok ezinbesteko du hedabideekin eduki nahi duen harremana zehaztea eta ondo finkatzea.

Erraza da garrantzi hori azaltzea. Gertakizun lokalak nazioarteko bilakatzeko amerikar agentzietatik igaro beharra dago oraindik. AEBetako egunerokotasuna —hauteskundeak, hondamendi naturalak, gertakari patriotikoak edo kirol arrotzen topaketa handiak— etxean sartu zaigu, baina munduko zonalde zabalak, Siberiatik Hego Afrikara eta Ekueadorretik Thailandiara, ilunpean daude informatiboki. Herrialde eta komunitate garrantzitsu eta indartsuen berriak, esaterako Brasil, Argentina, India edo Txinakoak, munduko masa agentzia indartsuen interesen arabera iristen zaizkigu gure berripaperetara, telebisetara edo irratietara. Hemendik kanpo,



noiz da notizia guri edo gure lurraldeari buruzko berriren bat? Nola ikusten dugu gure burua kanpoko hedabideen ispiluan?

Panorama aldatzen hasi dela ematen du. Sareko jario handi eta askotarikoak lehen ilunpean zeuden informazio eta interes lurralde handiak argitu ditu, baina hor ere dena ez da kultur txikien alde. Interneten onurak handiak izan daitezke hizkuntz komunitate ez hegemonikoentzat, baina azpiegiturarekiko morrontza traba handia da. Telekomunikazio sarea gutxi batzuen esku dago, eta toki asko oraindik interes gune nagusietatik kanpo daude. Hego Amerikako inguru askotan, esaterako, irratia askoz eskuragarriagoa da oraindik sare zerbitzari on bat baino.

Globalizazio horri globalizazioarekin egin dakioke aurre. Hau da, globalizazio

ia ezinbestekoari lokaltasuna, bertakotasuna, hurbiltasuna erantsi ahal zaio. Erantsi behar zaio. Baina horretarako, global pentsatzeko, ezinbestekoa da komunitatea beren buruaren jabe izatea, edo behintzat horrela sentitzea. Ezinbestekoa da trinkotzea, indartzea, etorkizuna dagoela sumatzea. Ezinbestekoa da hizkuntz komunitatearen gainerako kideekin zerbait partekatzeko dagoela sentitzea.

Komunikabideen sorrera

Zerbait partekatze hori publikoki egin daitekeela eta egin behar dela ulertzea, hau da, iritzia eduki, landu eta gara dezakeen masa egon badagoelako kontzeptua, XVIII. mendearen amaieran sortu zen. Eta XX. mendera arte ez zen hasi komunikabideei buruz hitz egiten. Ordura arte, komunikazioa ahozkoa izan zen nagusiki, eta idatzizkoa soilik eremu kultu edo administratiborako erabili zen. Ahozko transmisio hori komunikatzeko modu bat zen, noski. Bide bat zen jakinduria, bizipenak, tradizioak edo era guztietako kultur adierazpideak komunikatzeko eta hedatzeko. Baina paperezko komunikabideak, hau da, ideiak edo informazioa edo, zernahi dela ere, zabaltzeko lehenetako esperientzia arrakastatsuak, XV. mendean aurki ditzakegu Luteroren Alemanian:

Egunkariak, telebistak, irratiak, errealtatearen interpretazio periodiko bat baino zerbait gehiago dira: errealtatearen eraikuntza dira, eraikuntza bateratua

erreformazaleen oinarri eta eskakizunak zabaltzeko Europa osoan zehar barreiatu ziren paperak, horiexek. Horri *masa komunikabide* deitu izan zaio. Lehen hedabideak, gaur egun ezagutzen ditugunen antzekoak, XVIII. mendean sortu ziren European. Iritzi publikoa orduan jaio zen

Irratiaren historia bestelakoa da. Telegrafoarekin lotuta dago, eta, autoak gurdia ordezkatzeko asmatu ziren arrazoi beragatik, hura ordezkatzeko





pentsatuta egon zen hasieran. Hau da, mezuak bidaltzeko tresna gisa. Ederra da: mezuak bidaltzeko tresna. Hori izan da, jatorrian, komunikabide guztiak sortzeko arrazoia.

Irratiak alde on asko zituen telegrafoaren aldean, askoz toki gehiagora iritsi zitekeelako. Esaterako, ozeanoetan edo gutxi populatutako inguruetan ere erabil zitekeen. Baina ez zuen oso ospe handirik izan, hain zuzen ere horregatik: edonork entzun zitzakeelako mezuak, baldin eta gailu hartzaile egokia bazuen. Baina etxeetan sartu zenean, hasieran Ameriketako Estatu Batuetan, gero Ingalaterran eta Herbehereetan, sekulako komunikazio tresna gisa nabarmendu zen. Eta oraindik gaur egun, komunikazio tresna nagusienetako bat da. Seguru asko, hamar urte edo gutxiago barru,

hala izaten jarraituko du, nahiz eta transmisio mota aldatu: ohiko gailuen ordez, Internetez entzungo dugu irratia.

Irratiaren bidez komunikatzeko gaitasun teknikoa asko garatu zenean, telebistaren txanda iritsi zen. 40ko hamarkadan, AEBetan jada bazeuden telebista emankizunak, ia denak gerra-albisteak eta mezu ofizialak zabaltzera zuzendua, baina benetako eztanda 50eko hamarkadan izan zen. Orduan, telebista inoiz sortutako komunikabide eraginkorrena izan zitekeela ikusi zen. Hurrengo hamarkadetako bideak erakutsi zuen aurreikuspen oro motz gelditu zela: telebista etxe guztietan sartu zen, gaur egun Internetekin gertatzen ari den bezala, eta gizartea bera aldatu zuen. Eta Internet? MIT ikerketa zentroak 1991n argitaratutako liburu batean

—*Technology 2001; The Future of Computing and Communications* izenekoa, informatikako aditu askoren artean idatzita—, ez zegoen *Internet* hitzaren arrastorik, ezta *www*-ren arrastorik ere. *Ziberespazio* hitzaren arrastorik ere ez. Hamar urte geroago, AEBetako irakasle prestigiotsu batek idatzi zuen: "XX. mendeko komunikabideen historia idazten denean, Internet ekarpen garrantzitsuentzat hartuko da". Benetako leherketa 1993 inguruan gertatu zen, ordura arte soilik unibertsitateen arteko komunikazio gisa erabilitako sarea mundu osora zabaldu zenean, komuni-

katzeko modua eraldatu zuenean, eta ordenagailuen arteko komunikazioak XIX. mendeko Europako iraultza industrialaz geroztik izandako iraultzarik garrantzitsuenaren eragin zuenean. Zergatik? Ordura arte bakarrik ahaltsuen esku zegoen komunikazioa denen eskura jarri zuelako.

Garrantzitsua da kontzeptu hori ez ahaztea, hizkuntza txikien etorkizuna komunikabideen esku etorririko baldin bada, komunikabide eraginkorretan pentsatu behar delako. Interneten, esaterako.

Internet.



EUSKAL PRENTSAREN HISTORIA TXIKIA

Euskaraz argitaratutako lehen liburua XVI. mendekoa da. Kontuan hartuta inprenta mende bat lehenago hasi zela lanean Alemanian, ez da oso berandu. Eta bitxia da, baina esan daiteke euskaraz hasieran argitaratutako liburu ia gehienak komunikabide gisa erabili zirela. Poesia gutxi dago, nahiz eta, beste bitxikeria bat, lehen liburu inprimatua, Bernat Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae*, nagusiki bertso bilduma den. Baina poesia gutxi orokorrean. Historia liburuak ere, gutxi. Liburu akademikorik ia ez, eta administrazioari dagozkionak are gutxiago. Ez dago zientzia trataturik edo epopeiarik. Eliz gizonak dotrina zabaltzeko egindako liburuak dira hasierako mendeetako euskarazko lan gehienak, eta XIX. mendera arte argitaratutako ia dena erlijioaren ingurukoa izan zen, goitik behera eliz paperak,

beraz. Hots, elizaren sinesmenak komunikatzeko eta hedatzeko tresnak.

1766an, ordea, lehen kazeta lan gisa har daiteken testu bat agertu zen Baionako *Journal Maritime* kazetan: *Jaun Dauphin cenaren eritassouneco circunstancia berecien errelacionea, haren Coffesorak arguitarar emana* izenekoa. Frantsesezko itzulpena dela ematen du, baina ez dugu jatorrizko testua ezagutzen. Euskarazko bertsiorekin ale bakarra dago Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean. Erlazioak kazetaritzaren aurreko generoetako bat ziren. Gertaera baten berri ematen zen, kontakizun atseginaren bidez. Ez zen, beraz, idazkera ofiziala edo administrazioa. Zerbaiten notizia emateko asmoa zegoen, komunitate bati zerbait transmititzeko borondatea. Horixe da,



hasieratik kontatzen dena: "Ene desseinua ez da, agueri den beçala, Jaun Dauphinaren historia iscribatcea (...). Contentatuco naiz explicatceaz, manera simple eta lano batean, haren azquen circonstantia bereciac (...)"

Esan daiteke, nolanahi ere, berandu abiatu zela euskal prentsa. Bai, behintzat, inguruko adibideekin alderatzen baldin badugu. Frantzia eta Espainia, XVII. mendean, aldizkariak baziren, eta erlazioak, askoz lehenagotik. Kazeta lan gisa definitu genitzakeen euskarazko lehen testuak XIX. mendearen erdialdean agertu ziren *El Correo del Norte* aldizkarian, Donostian. Bertako liberelek euskara hutsezko aldizkari bat argitaratu nahi zuten, baina Espainiako Ministerioak ez zien baimenik eman, eta azkenean nagusiki erdaraz argita-

ratutako aldizkaria atera zuten. Baina asmoak balio du. Lehen ahalegin kontzientea hor dago.

Euskara hutsezko lehen aldizkaria handik gutxira argitaratu zuen Agosti Xaho ekintzaile, politikari, idazle eta sustatzaile zuberotarrak, Baionan. Xaho ezaguna zen Baionan prentsan egiten zituen aldarri sutsuengatik. Errepublikazale porrokatua zen, euskaltzale mina, apaizen mailua eta monarkiaren kritikari zorrotza, eta Parisen errepublika ezartzea erabaki zutenean bera jarri zen herriaren aitzinean, hainbat manifestazio eta aldarri sutsuren bidez. Xaho izan zen, bederen, bandera iraultzailearen atzetik kalera atera zen lehenetarik bat. Eta, jakinik berripapearak tresna eraginkorrak izan zitezkeela bere ideiak aldarrikatzeko, lehen euskal kazetari bilakatu zen.

Baiona ez zen toki txarra horretarako, moldiztegi gune garrantzitsua zelako. Victor Hugo karrikaren 40. zenbakian, Baiona zaharraren erdi-erdian, *Chez Lespes, Lithographe, Editeur des Chants Basques* moldiztegia zegoen, eta han argitaratu zuen Xahok *Ariel* aldizkaria. Eta, bi zenbaki besterik atera ez zituen arren, baita *Uscal-Herrico Gaseta* ere, lehen euskal albistaria, beraz. 1848ko ekainaren 30ean kale-ratu zuen lehen zenbakia. Eta hara non sarrerak Etxepareren lehen liburuaren tonu bera dakarkigun gogora, euskara bera baitu mintzagai: "Gaseta hounen hasiarekin, ezta txipi izan gure enbrasia, ea zoin herri edo probintziatako Usca-

raz, Escaraz, Eusqueraz edo Hescuaraz hautu eguin behar gunian izkribatzeko". Kezka zuen, beraz, zein euskara erabili. Kezka, ondorioz, nola iritsi jende gehiagorengana. Bere hautua garbi utzi zuen bederen. Berak bere euskarari egingo zuen, eta irakurri nahi zuenak gutxieneko ahalegina egin beharko zuen: "Eztakitzanak ikhas bitza. Eta, behin betikoz erranik, aski den". Errepublikaz, hauteskundeaz, garaiko arazoez mintzo zen hainbat artikulutan, eta gero dei sutsua egiten zien euskaltzaleei. "Benzitu behar dugu edo hil, eta segurantzabadi, libertateko bandera agertzen denean gure mendi puntetan, zuetarik bat ez dela izanen Eskualerriaren salbatzeko atzeratuko denik".

Eskualduna eta Goitino

Bi zenbaki baino ez zituen atera *Uscal-Herrico Gasetak*. Baina badirudi han zerbait piztu zela. 1848an, Etxeberri abadeak *Eskualdun Laborarien Adiskidea* kaleratzeari ekin zion, eta haren ondoren astekari batzuk argitaratu ziren, denak Ipar Euskal Herrian. Garrantzitsuena *Eskualduna* izan zen. Kazetak 1944ra arte iraun zuen, urte hartan debekatu baitzuten Bigarren Mundu Gerran Ipar Euskal Herria okupatu zuten nazien alde agertzeagatik. *Eskualduna* iparraldeko kontserbado-

reen euskal kazeta izan zen, eta Jean Hiriart Urruti, argitalpenaren arima, euskal kazetaritzaren aitapontekotzat har daiteke. 1891tik 1915era bitartean astekariko idazle ez ezik zuzendari ere izan zen, eta bi izan zituen lan arlo nagusiak: laborarien eguneroko interesei erantzutea, eta polemika kazetaritza sustatzea, politikan eta erlijio arloan batik bat.


Aldizkaria bera zuzendariaren interesen arabera moldatu zen, eta, hasieran batik bat, laborari eta etxeko jaunentzat egina bazen ere, gero eta gehiago zabaldu zuen bere irakurleen soslai. Hamabostekari gisa jaio zen, eta gero astekari bilakatu zen. Elebiduna zen, baina euskaltzalea haste-hastetik. Eta gero eta euskaltzaleago, orrialdeetan euskara nagusituz joan baitzen apurka-apurka. Hori batez ere Hiriart Urruti buruzagiaren lanari eta apaiz idazlari ugarien euskara on eta kalitatezkoari esker gertatu zen. *Eskualdunak* erlijioa eta euskara hertsiki lotu zituen, oso ideologikoa zen, erreportaje gutxi eta

**Abertzaletasunaren
hasiera-hasieran,
euskarak gutxitan gainditu
zuen balio sinbolikoa,
askoz garrantzitsuagoak
izan baitziren beste
kontzeptu batzuk euskal
herriak definitzerakoan.
Arraza, esaterako**

irudirik ere ez asko, baina, hizkuntzari dagokionez, ekarpen handia egin zuen, euskal kazetaren idazmolde bat taxutu zuelako, nafarreraren eta lapurteraren arteko *koiné* literario bat. Hizkuntza batua, esan nahi baita.

Eskualdunak urrezko tokia dauka, eduki behar du, euskal kazetaritzaren historian, baina euskaraz argitaratzen hasi zen lehen berriemailea, kazetaritza helburu ideologiko zehatzik gabeko jardun ekonomikoki interesgarritzat jo zuen lehen enpresa gizona, Jean Pierre Goitino izan zen (Ainhua, Lapurdi, 1860-Los Angeles, AEB, 1920). Lehen kazetari modernoak, nolabait esanda.

1893tik 1897ra berak argitaratutako *Californiako Eskual Herria* astekaria, behintzat, gaur egungo kazetaritzari eskatu ohi zaion ereduaren arabera antolatu zuen. Gertakariak, istripuak, garraiobideei buruzko informazio praktikoa, ezkontzen eta ehorzketen berri zehatza, auziak, eguraldiarekin lotutako berriak, Amerikako aberatsen inguruko gorabeherak, euskaldunen albistea eta Euskal Herriko berriak, bertsoak eta kantuak, amerikanoen idatziak, liburu aipamenak eta abar. Orduko, edo, behintzat, Kaliforniako euskaldunak biltzen zituen garaiko gizartearen ispilur hurbila izan zen aldizkaria. Zerikusi gutxi berriak helburu erlijioso edo politikoetarako nahi zituzten garaiko beste ahaleginekin. Goitinok berak horrela definitu zuen bizitza osoa bete zion egitasmoa: "Bertze nazione guziek beren gazetak badituzte eta gu hainbertze garelarik hedatuak Pazifikoko kostan, ez da justu baizik junta giten denak berriketari baten medioz. Gure interesak, hemen bederen, igualtsuak dira eta gure mintzo ederraren medioz bat bertzen



berriak jakinen ahal ditugu gure lekutik higitu gabe".

Sortzean, kapitalista talde batek lagundu omen zion, eta kaleratu eta urtebetera 3.500 harpidedun zituela esan zuen Goitinok. Berriemaileak zituen San Frantziskon, Tehachapin, Los Angelesen, Mexikon eta Montevideon. Bi orri argitaratzen zituen eta hiru dolar balio zuen urtean.

Honako hau da ondorio garbia: Ipar Euskal Herriko apaizek edo Ipar Euskal Herritik Ameriketara joandako lagunek garatu zuten, nagusiki, euskal kazetaritza XIX. mendean. XX. mendean, ordea, eta arrazoi politiko eta ekonomikoak zirela medio, Hego Euskal Herrira mugitu zen fokua. Bitxia da, baina literaturan ere, berdin gertatu zen.

Azkue eta Kirikiño

Aitzindaria, euskal kulturaren inguruko beste gauza askotan bezala, Resurreccion Maria Azkue izan zen, lehen euskaltzainburua. Gramatikalaria, hiztegiilea, musikaria, lehen euskal eskolaren sortzailea... eta kazetaria. 1897an *Euskalzale* astekaria argitaratzen hasi zen, euskara hutsez. Hiru bat urte iraun zuen, 1899a arte, eta denetariko berriak eman zituen, kulturari buruzkoak batez

ere, eta hainbat testu literario argitaratu zituen. Esaterako, *Gabonetako ikuskizuna* edo *Acto para la Nochebuena*, euskal antzerkiaren lan aitzindarietako bat. Ez zen abentura samurra izan ordea: agintariek oztopo ugari jarri zizkioten argitalpenari, erdaraz zerbait argitaratu behar zutela tematuta, baina Azkuek ez zuen onartu, eta azkenean aldizkaria desagertu egin zen. Berehala hasi zen beste bat ateratzeko asmotan, bera zuzendari izan gabe, eta Evaristo Bustintza *Kirikiño* konbentzitu zuen lan hori har zezan.

XX. mendearen lehen bi hamarkadetan euskal kazetaritzaren ingurua osatzen joan zen. Alde batetik, ordena erlijioso batzuek ateratzen zituzten aldizkariak



Resurreccion Maria Azkue

zeuden —*Jesus'en Biotzaren Deya, Jaungoiko-Zale, Irugarren goen Irakaslea*, besteak beste—; bestetik, aldizkari literarioak zeuden —*Euskal Erria* edo *Euskal Esnalea*— eta nekazaritzari buruzko aldizkariak: *Baserritarra*, *Bizkai-Aldundijaren Abeluin Baso-Ingurtija*.

Prentsa politikoa garatzen

Abertzaletasunaren hasiera-hasieran, hau da, abertzaleak Sabino Aranaren Euzko Alderdi Jeltzalearekin identifikatzen zirenean, euskarak gutxitan gainditu zuen balio sinbolikoa, askoz garrantzitsuagoak izan baitziren beste kontzeptu batzuk euskal herriak definitzerakoan. Arraza, esaterako. Eta hori antzeman zen haiek sortutako komunikabide idatzietan. Euskara soilik landa eremuarekin edo folkloreakin lotutako gaietarako erabiltzen zen, eta gainetarakoetan erdara zen nagusi. Horrela gertatu zen *Bizkaitarra* (1894-1895) edo *Baserritarra* (1897) agerkarietara. Baita Arana bera hil ondoren agertu ziren beste aldizkari jeltzaleetan ere: *JEL* (1907-1908), *Bizkaitarra* (1903-1913), *Gipuzkoarra* (1908-1913), *Arabarra* (1912an hasi eta irregularki agertu zena) eta *Napartarra* (1911-1918). *Napartarra* salbu, denak desagertu ziren egunkari nazional jeltzalea sortu zenean: *Euzkadi*. Han ere euskarak izan zuen bere

tokia, *Egunekoa* sailean. Kirikiño izan zen kazetaren arduraduna. Azkueren laguntzailerik hurbilena izan zen 1899-1910 bitartean, *Euskalzale* eta *Ibaizabal* aldizkarietan idatzi zuen, Bilboko euskarazko Katedran irakasle izan zen, eta hiztegi lanetan ere lankide eta informatzaile aritu zen, baina euskaltzalea suna Azkueren ondoan elikatu bazuen ere, *Euskalzaletan* eta *Ibaizabalen* artean erabili ziren euskarak oso desberdinak ziren. Esanguratsuki desberdinak.

Ibaizabal astekariak *Euskalzale* aurreko hizkuntza eredurantz jo zuen, ortografia sistema zaharretara alegia. *Ch* eta *c* erabiltzen zituzten, esaterako, *tx* eta *z*-ren partez, eta antzeko joera nabari daiteke ere joskeran eta hiztegian. Azkuek bultzatzen zuen eredu batua-ren aurkako joera zen hori, eta horrek bereizten zituen bi kazetariak. Azkuek ikusten zuen prentsa idatziaren garrantzia euskara estandarra finkatzen edo behintzat aitzinatzen joateko, eta Kirikiño, ordea, sabindarren eskolako hiz-





Euskararentzat espazio berriak: Argia

kuntz iritzietara hurbildu zen. *Euzkadi* egunkarian *Euzkel-atalaren* zuzendari lanetan hasi zenean, Bustintzaren xede nagusia berbera izan zen beti: erakitzen ari zen hizkuntz eredu landua zabaltzen joatea, baina presa berezirik gabe. Hori izan zen jeltzaleen joera nagusia, eta horrela iraun zuen Bizkaian oso berandu arte. Kirikiñok euskara garbizalea baina dotorea erabili zuen, hala ere, eta meritua izan zuen kazetari gisa bizi izan zelako. Aldizkarirako herrietako informazio-sarea sortu zuen, esate baterako.

Estepan Urkiaga *Lauaxeta* da beste bi aldizkari garrantzitsuren sortzailea, 30eko hamarkadan jeltzaleek euskara hutsezko astekari bat argitaratu zutenean: *Euzko*. Gerra garaian bera egon zen euskara hutsezko lehen egunkariaren sorburuan: *Eguna*.

Alabaina, dena ez zen jeltzaleek edo abertzaleek sortutako euskal prentsa, beste alderdi politiko batzuek ere prentsa elebiduna izan zutelako. Elebiduna zela esatea, beharbada gehiegi esatea da: euskarari tokia utzi zieten.

Baina alderdi bakoitzak euskara eta euskararen zabalpena nola ulertu eta nola baliatu zuen aztertu baino, hemen askoz garrantzitsuagoa eta interesgarriagoa zaigu ikustea nola, besteak beste Azkuek eta beste sustatzaile batzuek egindako lanaren ondorioz, eta Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia gisako erakundeen sorreraren arrimuan, euskal prentsak urratsak ematen jarraitu zuen. Helburua, beti garbi: euskararentzat espazio berriak sortu eta euskaldunengana informazio guneak eskaintzea. Eta



Lauaxeta

20ko eta 30eko hamarkadan, euskara hutsezko aldizkari garrantzitsuak argitaratu ziren, euskarazko irratsaioak aieratu ziren, eta, lehen aldiz, egunkari baten beharraz hitz egiten hasi ziren kazetariak.

Donostiako *Argia* astekaria da garai hartako eta euskal prentsaren historiako hedabiderik garrantzitsuenetako bat. Hainbat euskaltzalek sortu zuten 1921ean, eta bi urte lehenago jaiotako *Zeruko Argia*arekin kolaborazio estua izan zuen. Aldizkari hau kaputxinoek sortutakoa zen, hilabetekari erlijio-soa zen beraz, formatu txikikoa eta osorik euskaraz idatzia. *Argia*, berriz, informazio orokorreko astekaria zen. Hura ere, euskara hutsez. 36ko gerra-

Gaztelaniazko prentsara dirua eta aukera berriak iritsi zirenean, euskaraz bizi zen prentsak, edo prentsa horren kazetari batzuek bederen, hizkuntzarekin lotutako hautu erabakigarria egin zuten. Eta hautu horrek etorkizuna marraztu zuen

rekin batera, isildu egin ziren biak, eta 50eko hamarkadan *Zeruko Argia* pizteko ahalegina egin bazen ere, zenbaki solte batzuk baino ez ziren argitaratu, agintari frankisten debekuak tarteko. 1963an abiatu zen berriro *Zeruko Argia*, aurreko bien oinordeko. Jabetza kaputxinoena zen, baina itxura eta maiztasuna berriz, *Argia*renak ziren.

Oso lan talde sendoa bildu zen, euskal kulturaren erreferentziazko izen ugari tartean. Garai hartako idazle eta kazetari bikainenetakoen kronikak eta artikulua argitaratzeko plaza onenetakoa izan zen aldizkaria. 1970eko azaroaren 1ean bere izana bildu dezakeen editorial moduko bat argitaratu zuen, zehaztuz zertarako egiten zuten aldizkaria: "Euskaldun desberdinentzat egiten da: sinestun eta sinesgabe, ezkertiar eta eskuindar, aurrerakoi eta atzerakoi, baserritar eta kaletar, jakitun eta ezjakin, zahar eta gazte, hemengo eta mugaz handikako. Bagara zerbaitetan bat: euskaldunak, euskaldun menperatuak, gaitzetsiak, minduak, erasoak, urrutiratuak. Ba-



tzen gaituzten alderdi eta lokarriei eutsi nahi genieke. Batzen gaituen sua indartu. *Zeruko Argiak* oso irekia, talde jakin bati lotu gabea eta lotan dauden esnalea izan nahi du. Euskal iritzi eta jokabideetan dabilen guztientzat irekia. Idazle eta irakurle, denon artean egingo dugu Z. A. bizi, gaurko, ireki. Esnatzaile eta euskalduna".

Hirurogeita hamarrek hamarkadaren amaieran *Egin* eta *Deia* egunkariak argitaratzearekin, taldea odolustu zen, bi egunkari horietara joan zirelako kazetariak, komertzialak, publizitatea, dirua. Bazirudien eredu elebiduna —hau da, informazioa nagusiki gaztelaniaz, gehi euskarazko edukiak— nagusituko zela, eta *Zeruko Argia* krisi betean sartu zen, harik eta gazte koadrila batek kooperatiba sortu eta izena aldatzea erekin batera —hortik aurrera *Argia* da aldizkariaren izena—, produktua berriro aitzina bultzatu zuen. Joxemi Zumalaberen inguruan osatutako talde hura da lehen kazetari euskaldunen belaunaldi osoa.

Aztertuko dugu garai erabakigarri hori, baina itzul gaitezen lehenengo *Argiaren* garaietara. 20ko eta 30eko hamarkadetara, euskal kulturaren lehen goraldira, euskalgintza dei zitekeenaren sorrerara. Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza sortu berriak, lehen idazle modernoak, lehen ikastolak, prentsaren ugaltzea... Orduan, euskarazko lehen egunkaria ateratzeko asmoa aztertu zuten batzuek. Esaterako, Jose Maria Agirre *Lizardi*

poeta, kazetari, politikari eta enpresa-gizonak. *Argia* izan zitekeen euskara hutsezko lehen egunkari hura, eta Lizardik kontuak atera, atera zituen, baina, dirudienez, bere kalkuluak ez ziren nahikoak izan. Ekonomikoki produktua ez omen zen errentagarria, eta ezerezean geratu zen asmoa, Aitzolek (eta, ondorioz, EAJk) *El Díaren* aldeko hautua egin zutelako.

Egunkaria, amets

Euskara hutsezko egunkariaren nahia ametsa zen orduan, dena egiteko zegoelako: idazkera batua, kazetari euskaldunak, irakurle euskaldunak, banatzeko tokiak, ez zegoen ezer. Euskaltzaindiak, orduan, tarteko bide bat hobetsi zuen. Bulego bat antolatu zuen erdal egunkari batzuetara euskal testuak bidaltzeko, eta komunikabide handien laguntza eskatu zuen horretarako. Asmoa zen egunkarirako bidea prestatzea, kazetariak eta irakurleak formatzea, baina azkenean hori ere ez zen gorpuztu.

Hogeita hamaseiko gerra piztu zenean, ezinezkoa egingarri bihurtu zen: 1937ko urtarrilaren 1etik ekaina arte, EAJ alderdiak, Euskadiko alderdi nagusi eta lehen Eusko Jaurlaritzan gehiengoa zuenak, *Eguna* izeneko egunkaria argitaratu zuen. Enpresa hiru kazetari gaztek eraman zuten,



hainbat kolaboratzaileren laguntzarekin. Gerra egoera bortitza zegoen, Francoren aldekoak lurralde osoa erasotzen eta inbaditzen ari ziren, eta mezu gehienak politikoak edo gerrarekin lotutakoak ziren. Lehen zenbakian, editorialak hainbeste itxarondako ametsaren aurreko poza agertzen zuen: "Pozez gañezka gatoz eta poz orreri eutsi eziñez negarra yatorku begietara. Ezin dogu ziñestu. Euzkeltzale ta euzkeldun gustion ames zoro ta ezintzat uste zana, egi ta ixatean biurtuteko agindu zindua artu dogu goxetik gabera". Gerra galduta, erbestera bidea hartu behar izan zuten kazetari gehienek.

Hortik eta 80ko hamarkada bitartera, ia *Zeruko Argiak* bakarrik eutsi zion. *Zeruko Argiak*, eta *Herriak*, Iparr Euskal Herriko kazeta, *Eskualdunaren* lekukoa hartu zuena 1944an bertan. Piarres Lafittek zuzendu zuen 1944tik 1967ra, eta garairik onenean 5.000 ale kaleratu zituen. Aldizkaria gerra aurreko kazeta moldetik aldendu zen, eta ez zen abertzale agertu. Lafittek uste zuen bestela irakurleak uxatuko zituela, eta kazeta bizirik eusteari eman zion lehen-tasuna. Gainerakoan, *Eskualdunaren* ordezkio petoa dugu *Herria*. 1990ra arte, Frantziako legeek behartuta, frantsesezko testuak sartu zituen zenbaki guztietan, baina gaur egun euskara hutsez da, eta garrantzi handia dauka tokian tokiko informazioak.

Euskal prentsa eta elebitasuna

Francisco Franco diktadorea hil eta demokraziarako lehen urratsak ematearekin batera, euskal prentsa ere hurrengo urteetara begira jarri zen. Eta esanahi handiko urratsak ematen hasi ziren.

Une berezia zen. Euskal Herria borbor politiko, sozial eta kultural bete betean murgilduta zegoen, eta mugimendu guztiek sinbolismo handia zeukaten. Zentsura atzaparrak askatzen hasia zen, prentsa askatasuna zegoela aldarrikatzen hasi zen Gobernuak, eta hedabide berriak sortzeko mugimendu handiak zeuden nonahi, abertzaletasunarekin lotuta gehienak; eta prentsa elebidunaren aldeko apustua egin behar zela sinetsita zeuden asko eta asko. Eragin-kortasuna bilatu behar zela ahalik eta jende gehienengana iristeko, nahiz eta, praktikan, horrek esan nahi zuen euskara bidean utzi behar zela. Hau da, nahiz eta horretarako, zabalpena ziurtatzeko, gaztelania erabili behar zen. Hedabide berri horiek euskal aldizkari edo euskal hedabide titulua jarri zioten euren buruei, nahiz eta nagusiki gaztelaniaz argitaratzen ziren.

Horrek gogoeta interesgarria eragin zuen. Ea zer prentsa behar zen. Ondorioz, euskal prentsa zer ote zen eztabaida derrigortuta etorri zen. Derrigortuta, eragina ez zelako bakarrik

demagogikoa izan: sortzen ari ziren hedabideen atzean enpresa eta interes talde handiak zeuden, tartean alderdi politikoak ere bai, eta baldintza eta aukera hobeak izanda, idazle eta kazetari askok hedabide elebidunetarako jauzia egin zuten. Euskal prentsarentzat benetako odolustutzea izan zen, eta hainbat eragilek une hartan beren burua kokatu eta definitu behar izan zuten.

Eta komunikabideetan ere euskarak bere tokia behar zuela sinesten zutenek, euskararen geroa komunikabideenarekin lotuta zegoela susmatzen zutenek, euskararen normalizazioan zeregin garrantzitsua zutela uste zutenek, horiek garbi asko bereizi zituzten eremuak. Euskal prentsa, euskaraz egiten zena zen. Hau da, ahulenen zegoenean, gaztelaniazko prentsara dirua eta aukera berriak iritsi zirenean, kazetari askorentzat lan aukera bikainak zabaldu zirenean, euskaraz bizi zen prentsak, edo prentsa horren kazetari batzuek bederen, hizkuntzarekin lotutako hautu erabakigarria egin zuten. Eta hautu horrek etorkizuna marraztu zuen.

Urte hartan, 1976an, *Euskal kazetaritzaren urtea* izendatu zuen *Zeruko Argiak*, eta *Anaitasuna* hamabostekariak eta *Goiz-Argi* aldizkariak ere bere konpromisoa berretsi zuten euskal prentsarekin. *Zeruko Argiak* birmoldaketa handi samarra abiatu zuen: kolorea sartu zuen, gaurkotasun handiko gaiei heldu zien —lehen zenbakian Lemoizko zentral nuklear eztabaidatsu eta polemikoaren gaiarekin zabaldu zuen—, eta,


orokorrean, leku handia hartu zuten eztabaida estrategiko eta ideologiko nagusiek. Urrats erabakigarria eman zuten horrela, kazetaritza politikoa egiteko erabakia hartu zuelako. Kazetaritza herriaren nahi eta asmoen mesedetan jartzeko intentzioa erakutsi zuelako. Begira 1976ko lehen editorialari: "Euskal kazetaritza indartzeko orduak jo du. Baina kazetaritza kazetagintzan bakarrik indartu daiteke. Lehengoan utzi gabe gai orokorragoei ekiteko garaia du. Gizarteko hauzi-mauziei begira azterketa egin eta argia eskaintzeko ordua badu. Gure herriak bere nortasuna gorde nahi baldin badu bideak egin beharko ditu. Bidegintzan ari direnen berri eman beharko du euskal kazetariak. Gure herria bidekurutzetan ere aurki daiteke behin baino gehiagotan; bidea hautatzeko argia eskaini beharko du kazetariak".

Herriari *bidea hautatzeko argia* eskaini.

Beste hau ere bai: "Komunikabideetan sartu behar dugu euskara. Komunikabide eta zerbitzu leku guztietan sartzen ez dugun bitartean *euskara zertarako* galdetuko du askok. Toki hoietan denetan gaztelania erabiltzen den bitartean ez du inork euskararen premiarik sumatuko, erdararen beharra baizik. (...) hau ez dugu astean behingo tele-saio edo egunkarietako orritxo batekin agertuko. Euskal kazetaritza irmo bat sortu behar dugu. Euskaldunon iritzi, lan arazo, jokabide eta ametsen berri emango duen kazetaritza behar dugu. Euskal leihatilatik munduari so egingo dion kazetaritza. Munduko berriez gure herria hezetuko duen kazetaritza".

Hor dago bigarren oinarria. Herria gidatzeko tresna izango da, beraz, euskal kazetaritza. Eta, gainera, euskaraz burutuko du gidaritza hori.

Horregatik, agerkari eta argitalpen asko kalera atera zirenean, itxuraz haientzat ere *euskal* adjektiboa errebindikatu, euskal kazetek garbi utzi nahi izan zituzten mugak. "Euskal kazetaritza ahultzeko eta zapuzteko bide bilakatzen den erdal aldizkaririk 'euskaldunena' ere ez daiteke onar" irakur daiteke garai hartako editorial batean. Eta hau ere, garai bertsua da, 1976ko alegia: "Euskal ikuspegi egindako erdarazko egunkari eta astekariak beharrezko zaizkigu. Baina hau ezin daiteke euskararen galeran egin. Euskara indartzea eta zabaltzea nahi baldin badugu euskal komuni-



kabideetan, euskaraz diren komuni-
kabideak alegia, indartu eta zabaldu
behar ditugu".

Laster asko antzeman baitzituzten
arriskuak: dena euskal hedabideen
aurka zihoan. Erdarazko prentsa aber-
tzaleak irakurleak kendu zizkion euskal
prentsari, eta idazleak ere kendu. Eus-
karaz egiten zen prentsan ez zegoen
dirua erdal prentsan bazegoen, eta
euskal prentsan egon zitekeen apurra
ere harantz mugitu zen, publicitate eta
baliabideen eskutik. Dena, euskarari
toki anekdotikoa emateko: euskaraz,
bigarren mailako albisteak; folklorea
edo zuzenean hizkuntzarekin lotutako
gaiak. Hizkuntzak, horrela, toki anekdo-
tikoa ez ezik, toki sinbolikoa hartu zuen.

Gauza *garrantzitsuak*, esaterako politi-
ka, ekonomia, kirola... horiek gaztelaniaz
agertzen ziren beti.

Intuizioak, beraz, berehala baieztatu
ziren. Eta ideia bat nagusitu zen: eus-
kaldunek beren unibertso euskalduna
eraiki ezean, proiektu elebidunetatik
unibertso erdalduna baino ez zitekeen
espero. Edo, garai hartan ere garbi
formulatu zen bezala: ikusteke dago
prentsa euskaldunak erdaldunak eus-
kalduntzera behar ditzakeen, baina
garbi samar dago prentsa elebidunak
euskaldunak erdaldun bihur ditzakeela.

Elebitasun orekatuaren mitoa

Garai hartako eztabaidak oso garran-
tzitsuak eta kontuan hartzekoak dira,
hurrengo urteetako ibilbideak horixe
baino ez zuelako frogatu, elebitasun
orekatuaren mitoa faltsua dela. Hizkun-
tza hegemonikoa beti nagusitzen dela,
edo beti nagusitzen ahalegintzen dela
behintzat. Horregatik da hegemonikoa.
Eta, beraz, hizkuntza azpiratuak espa-
zio hegemonikoak bilatu behar ditu. Ez
beste hizkuntza edo hiztunak berak ere
azpiratzeko, baizik bera azpiratze horre-
tatik atera ahal izateko.



- Denborarekin, euskararen presentziak ez du gora egiten prentsa elebidunean, alderantziz baizik. Hainbat kazetatan, batzuetan diru laguntzen mesedetan, euskaraz argitaratzen hasi ziren gehigarriak edo lanak desagertu egin ziren denborarekin.

Esan dugu 70eko hamarkadaren amaierako erdal prentsa abertzalearen lehorreratzeak asko ahuldu zuela euskal prentsa. **Anaitasuna** desagertu

zen, eta, hilabete batzuez agertu barik egon ondoren, *Argiak* ozta-ozta eutsi zion. *Herria* lpar Euskal Herriko kazeta beteranoa egiten zutenek ere ez zioten etorkizunari trazarik hartzen. Horrela mintzo zen Emile Larre zuzendaria. "Odol berria behar da. Abtsolutuki odol berria, edo galduko da. Nik 61 urte ditut orain. Baina ez dut ikusten gazteagorik nere lekua hartzeko, agertzen denik ez dut ikusten. Hori beharko du Euskal Herriak gauza horretaz kontzientziatu".

Aizu, Elhuyar, Anaitasuna, Argia, Euskera, Goiz-Argi, Herria, Ikastola, Ipurbeltz, Jakin, Jaunaren Deia, Karmel, Kili-Kili, Oh Euzkadi, Olerti, Saski-Naski, Susa eta Zer. Horiek ziren 80ko hamarkada hasieran euskaraz argitaratzen ziren aldizkariak. Baina



informazio orokorreko aldizkari gisa, Hego Euskal Herrian, soilik *Argiak* eutsi zion erronkari, eta *Herriak*, Ipar Euskal Herrian. *Argiaren* kasuan, belaunaldi berri baten bidez, argitalpena indartzen joan zen, eta euskaraz idazten zuten kazetari eta idazleen bilgune bilakatu zen. Baina 80ko hamarkadaren amaieran, beste erronka are zailagoari heldu behar izan zion: euskarazko egunkariaren erronkari.

Egunkaria Sortzen

Egiaz, amets bat zen. Ba ote zegoen kazetari belaunaldirik prest horrelako erronkari eusteko? Bazegoen irakurle kopuru nahikorik horrelako erronkari eusteko? Batzuek pentsatu zuten galdera horiek soilik praktikaren bidez izango zutela erantzuna. Eltzea sutan probatzen dela, alegia. Eta kazetari, idazle, euskaltzale eta intelektual sorta batu zen, eta Egunkaria Sortzen taldea osatu zuten 1989an. Urtebetez, egunkari nazional eta euskaldunaren beharra azpimarratzen aritu ziren Euskal Herriko ia herri gehienetan. Eztabaidetan, kezka ugari entzun behar izan zituzten: "oraindik ez da garaia", "azkarregi da", "euskara ez dago egunkariarentzat prestaturik", "ez dago kazetaririk", "ez dago irakurlerik". Eta hala eta guztiz ere, aurrera egitea erabaki zuten.

Abiada bizian eman ziren hurrengo urratsak. *Euskarazko Prentsaren alde* firma bilketa egin zen azaroan bertan. Abenduaren 10ean, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan, 50 lagunetik gora bildu ziren Egunkariaren Oinarrizko Ezaugarriak ezartzeko, eta 1990eko urtarrilaren 21ean osatu zen azkenean Egunkaria Sortzen Talde Eragilea, Donostian. Hiru batzorde osatu ziren Egunkariaren proiektua egiteko: Batzorde Bateragilea, Ekonomi Batzordea, eta Kazetaritza Batzordea. Talde Eragileak Euskarazko Egunkarirako Proiektua prestatu zuen, eta talde bultzatzaileak apirilaren 7an onartu zuen proiektu hura, batzarrean. Maiatzaren 5etik uztailaren 15a bitartean proiektua herrietan aurkezteari eta dirua biltzeari ekin zion taldeak. Eta ekainean egin zen jaialdi handi batean, 0 zenbakia aurkeztu zen. Izena: *Egunkaria*. Zein bestela.

Udazkenerako agindu zen *Egunkaria*, baina lan handia egin behar zen horretara iristeko. Egoitza, azpiegitura tekniko-informatikoa, kazetarien prestakuntza, martxan jartzeko kanpaina, dena zegoen egiteke, baina abenduaren 6an kalean zen *Egunkaria*.

Eta airean zeuden galderak erantzuten hasi ziren orduan. Kazetariak baziren, nahiz eta horretarako *Argia* bera jendez eta baliabideez hustu behar izan zen. Irakurleak baziren, egunkaria sortu eta bi urtera, neurketa agentzia batek 11.212 erosleren kopurua eman ziolako egunkariari. Ez zen goizegi, beraz. Beharra bazegoen, beraz.

Hasierako urteak oso gogorrak izan ziren, Eusko Jaurlaritzak inolako laguntzarik emateari uko egin baitzion. Ez diru laguntzarik, ez erakundeen publizitaterik egunkari berrian. Beste egunkari bat sortuko ote zuen ere iragarria zeukan Jaurlaritzak, baina azkenean ezerezean geratu zen. Baina proiektua baldintza gogorretan aurrera egitera behartu zuen, jakin baitzen gisa honetako ekimen ausartak —erredakzio egoitza nagusia, ordezkariak euskal hiriburu guztietan, kiosko guztietan goizean goiz egoteko apustua, harpidetza sistema eraginkorra...— laguntza publikorik gabe nekez egin zezakeela aurrera.

Azkenean, 1994an lortu zen *Egunkaria* eta Jaurlaritzaren arteko hitzarmena, diru laguntza publikoen deialdietan sartzeko, eta publizitate kanpaina ofizialen barruan ere kontuan hartua izateko. Oinarriak oso garbiak ziren, hala ere. *Egunkariak*, euskal egunkari bakarra izanik, zerbitzu publikoa ematen zuen, euskaldunek informazioa beren hizkuntzan jasotzeko eskubidea zegoelako horren azpian. Beraz, zerbitzu publikoa, baina izaera pribatua —milaka akziodun txiki—, eta hiru ardatz eztabaiaezin: independentzia, profesionaltasuna eta aniztasuna.



Tokiko hedabideen arrakasta

Laurogeita hamarreko hamarkadako berri nagusienetako bat, euskal prentsan, *Egunkariaren* sorrera izan zen. Bestea, tokiko hedabideen gorakada. Bertan eta bertakoendako pentsatutako informazio eredu berri, bizi eta eraldatzailea. *Arrasate Pressena* izan zen ekimen aitzindaria, hura izan zelako euskara hutsean idatzitako aurreneko herri aldizkaria, eta aldizkaria bera hartu zutelako eredu beste hainbat proiektu gauzatzeko.

1988ko abenduaren 2an ikusi zuen argia *Arrasate Pressek*. Lagun talde baten ideia izan zen euskal astekari bat kaleratzen hastera, eta arrakasta lortu zuten berehala. Alde izan zuten 80ko hamarkadaren amaierako aurrerapen teknologikoek asko erraztu zituztela argitalpenak. Esaterako, auto-edizioa ahalbidetzen zuen teknologia asko merkatu eta aitzinatu zen. Eta euskara elkartearen inguruan sortutako mugimendua aldeko haizea ez, benetako bendabala izan zela esango genuke. Horregatik, garrantzitsua da begiratzea elkarte horiek nola sortu ziren, azken batean euskarazko tokiko komunikabideen eredu horixe izan zelako: autoeraketaren eredu.



Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) taldea Debagoienan, Gipuzkoako bihotz industrialean, sortu zen 80ko hamarkadaren erdialdean. Taldearen helburua, hasieratik, Arrasaten euskararen normalizazioa lortzea izan zen. Euskaraz bizitzea erdaraz bizitzea bezain erraza edo eroso izatea. Lehen urteetan, taldeak hizkuntzarekiko kontzientziazioa bultzatzeko kanpainak martxan jarri zituen. Taldekideen borondate eta kimen

**Tokian tokiko hedabideen
esperientzia oso
arrakastatsua izan da:
lehendabizi euskara elkarteak
sortu ziren eta gero elkarte
horiek komunikabideak
martxan jarri zituzten. Beraz,
euskararen beharretatik
sortutako komunikabideak
dira Euskal Herriko tokiko
hedabide gehienak**



handiak ziren erregai nagusiak, baina ez bakarrak. Garai hartako herri agintarien artean euskara bultzatzeko kontzientzia zegoen, eta, gainera, jendea prestatuta ateratzen ari zen unibertsitateak, irakaskuntza ziklo osoa euskaraz burutu zuten aurreneko belaunaldiak baitziren haiek. Eta talde horrek izan zuen lehen asmo handiarentzat, tokiko komunikabideentzat, bazegoen gainera fakultatea: Euskal Herriko Unibertsitateko Kazetaritza Fakultatea. Bertako kazetariak bertako komunikabideetan. Pagotxa.

Testuinguru horretan sortu zen *Arrasate Press*. Lurra heze zegoen, baina, testuinguru guztietan gertatzen den bezala, hazia ere behar zen, eta hazi hori koadrila baten ametsa izan zela esan daiteke gaur egun. Euskal aldizkariak zituzten arazoak ikusita —gogora dezagun *Argiaren* eta *Herriaren* egoera latza—, euskara hutsean idatzitako aldizkariak arrakasta izateak ia pentsaezina ematen baitzuen orduan.

Errentagarritasun ekonomikorik eza zen lehen oztopoa, baina ez bakarra, orduan uste zabaldua zegoelako euskal argitalpenen irakurleak gai jantzi samarren kontsumitzaileak zirela, eta aldizkariak, horregatik, gutxiengo ba-

tengana zuzendutako argitalpenak zirela. *Arrasate Press* martxan jarri zuen taldea ohartu zen herritar orori zuzendutako euskal aldizkariak falta zirela, eta egunerokotasunean oinarritutako informazioa jorratzea interesgarria zela. Euren asmo nagusia euskara sustatzea zen, eta aldizkari bat jardun horretarako baliabide egokia izan zitekeela iruditu zitzaien. Horretarako, baina, euskal prentsa tradizionaletik urrundu beharra ikusi zuten: ohiko aldizkarietan sartzen ez ziren gaiak jorratuz, eta testu irakurterrazak eskainiz.

Finantzazioaren korapiloa nola askatu aztertzeko, Nafarroako hegoaldean, Tuteran argitaratzen zen *Ribera Navarra* aldizkarian jarri zuten begirada, eta hura hartu zuten oinarritzat: tokian tokiko iragarkiak ziren hango diru iturri nagusia. Hau da, denda, saltoki eta enpresa txikiak iragarki merke eta txikiak. Sarrera txiki ugari esker, aldizkaria errentagarri ateratzen zen, kostu txikiak izateaz gain dohainik banatzen zelako, eta horrela, milaka etxetara iritsita, publizitatea jartzen zutenentzako erakargarria zelako.

Baina, publizitatean berritzaileak izateaz gain, Jaurlearitzaren eta Arrasateko Udalaren laguntza ere bilatu eta lortu egin zuten. *Arrasate Pressek*, publizitateari eta bi erakundeek diru laguntzei esker, kazetari profesionalak kontratatatu zituen, eta taldea osatu zuten.

Lehenengo zenbakia Arrasateko 1.700 etxetan banatu zen doan, eta 1990ean

aldizkariak 7.000 ale banatzen zituen Arrasate inguruan. Arrasate 20.000 biztanle inguruko herria da, eta ale horiek guztiak Arrasatera ez ezik, inguruko herrietara, Espainiara, Kataluniara eta munduko hainbat txokotara bidaltzen zituzten posta bidez. 1993an kolorearen presentzia areagotu egin zen astekarian, eta 1998an kamera digitalak azken orduko lanak egitea ahalbidetu zuen.

Aldaketa nabarmena, ordea, astekariaren kudeaketan izan zen. 1990ean **Arrasate Telebista** jaio zen, eta AED elkarteak ARKO sortu zuen: Arrasate Komunikabideak. 2001ean Goiena Komunikazio Zerbitzuak sortu zuten Debagoienako eta Aramaioko Euskara Elkarateak. Kooperatiba bat da gaur egun, eta lau hedabidetan banatzen du bere jarduna. 52 langile ditu.

Euskara elkarteen eredua

Arrasateko esperientzia oso arrakastatsua izan zen, eta poliki Euskal Herriko beste eskualde askotara zabaldu zen, eredu berdinari jarraiki: lehendabizi euskara elkarte sortu; gero, elkarre hurrek komunikabidea martxan jarri. Esan behar da, beraz, euskararen beharretatik sortutako komunikabideak direla Euskal Herriko tokiko hedabide gehienak. Ez dira ohiko komunikabideak, ez

dira ohiko enpresak. Gizarte ekimenak sortutako komunikazio bideak dira. Interesgarria da hau hobeto azaltzea, gogoeta sendo eta trinkoa dagoelako proiektu horren guztiaren atzean.


Laurogeiko hamarkadaren amaieran, hainbat herritan ohartu ziren hizkuntzaren normalizazioaren alor asko lantzen zituzten elkarre eta erakunde asko ari zirela lanean, esaterako irakas-kuntzan, alfabetatzean, hizkuntzaren corpora osatzeko ahaleginean, hizkuntz eskubideen aldarrikapenean eta abarretan, baina erabilera ez zela asko lantzen. Orduan hori zen, eta gaur egun ere hori da euskararen normalizaziorako oztopo handienetako bat. Normalizazioaren inguruan aritutako gogoetagile batzuk, beraz, jabetu ziren ez zela nahikoa



kanpainak egitea hiztunek toki eta une orotan euskara erabil zezaten, baliabi-deak ere behar zirela hiztunek toki eta une orotan euskara erabili ahal zezaten. Horretarako sortu ziren euskara elkarteak: euskararen erabilera sustatzeko eta erabileran eragiteko.

Baina beste ezaugarri bat ere bazuten: herria edo eskualdea zuten elkarteak ziren. Hasierako bultzatzaileek pentsatzen zuten sentibilizazioaren aldeko lana askoz eraginkorragoa zela baldin eta gertuago egiten bazen, bertatik eta bertakoentzako sortutakoa baldin bazen. Euskara elkarteek, beraz, ezau-garri hauek izan zituzten hasieratik: herritarrek herrietan eta herritarren-

dako sortutakoak ziren, norbanako bazkideek osatuta, eta bazkide horiek euskaldunak ziren. Beraz, euskaldunok euskaldunontzat sortutako elkarte gisa definitu daitezke. Herri mugimendua, alegia. Hala nola definitzen duen Joxemi Zumalabe fundazioak: "Herri mugimendutzat dugu politika ofizialetik kanpo herritarren premia zehatzei erantzuteko sortu den antolamendu mota oro. Herri mugimenduak zuzeneko parte-hartzea eta elkartasuna defendatzen ditu, eskuordetzarik gabe eta konpetitibitatearen aurka. Hitz batez esateko, gaur egun gizarte alternatibo baten oinarri diren balioak bultzatzen dituena da herri mugimendua. Alor ezberdinei ekinez,



herri mugimendua gizarte arazo anitzei irtenbideak ematen saiatzen da”.

Eta zergatik hedabideak? Zergatik hedabideei begiratu erabilera eta sentiberatasuna bultzatzeko unean? Elkartekideak ohartu zirelako tokiko albisteak argitaratzea euskaldunon hizkuntzaren erabileran eragiteko modu, horixe, eraginkorra zela. Eraginkortasun horren benetako maila ulertzeko kontuan hartu behar da Euskal Herriko prentsaren kontsumo indizeak Europako altuenetakoak direla.

Gizarte ekimeneko jarduerak helburu dituzten antolakuntza hauen beste oinarrietako bat hasieran finkatu zen: ez zuten irabaziak bazkideen edo akziodunen artean banatzeko asmorik izango. Jardueraren bidez irabaziak izanez gero, etekinak jarduera horretan edo antzeko helburuak dituzten gizarte ekimeneko bestelako jardueretan inbertituko ziren; esate baterako hedabidea baliabidez hornitzen, multimedia ikuspegiarekin komunikabideen arloan egitasmo berriak martxan jartzen edo hizkuntzaren erabileraren barruan beste jarduera mota batzuetan inbertitzen: haurrentzako egitasmoak, euskaldun berriei zuzendutako mintzapraktika programak, kultur egitasmoak eta abar.

Gaur egun, euskara elkarte guztien artean 20.000 bazkide, 400 langile, 3.000 boluntario, eta 95 elkarteko sarea osatzen dute. Topagunea federazioan bilduta daude gehienak. 2011ko otsailean egindako kongresuan *Euskaldunon*



elkarten oinarriparrrak izeneko dokumentua onartu zuten, eta bertan gogoe-ta sakona egin zuten gaur egungo egoe-raz eta euskara elkarten langintzaz. Eta eleaniztasunaz, eta unibertsaltasunaz.

“Eleaniztasunaren aurrean” irakur daiteke dokumentuan, “lehenengo euskara eta gero beste hizkuntzak izango da premisa. Unibertsaltasuna etxetik hasten da. Adi ibili behar dugu, ordea. Izan ere, ondo dakigunez, eleaniztasun zein kulturartekotasunaren alde omen dauden diskurtso askoren azpian politika fagozitatzaileak ezkutatzen baitira. Eztabaida teorikoa dena estrategikoa ere bada. Euskaldunok jakin dugu gaurdaino heltzen, historian zehar inoiz izan garen baino gaituago gara gaur egun, baina paradoxikoki inoiz baino larriago ere egon gintezke eleaniztasunaren baitan euskarak lehen hizkuntza izateari uzten dion neurrian. Hizkuntza menostuak ezin dio uko egin euskal elebidunen tipo linguistikoa hegemoniko izateari”.

Hedabideetako euskara

Esana dago: hedabideek garrantzi itzela dute hizkuntzak prestigiatzeko, sendotzeko, hizkuntz komunitatea bera trinkotzeko, eta hizkuntza arautzeko. Hizkuntza normalizatzeke. Eta normalizazioa batez ere hizkuntza idatziaren eremuan egin behar da, hori baita arauak gehien behar dituen komunikazio esparrua.

Arlo horretan, euskal eguneroko prentsak egin duen lana oso azpimarratzekoa da. 1990an *Egunkaria* abiatu zenean, euskara batuak oso ibilbide laburra egina zuen eguneroko prentsan, eta proiektu horretan aritu ziren kazetari gazteek hamaika



erronkari aurre egin behar izan zioten eguneroko, sail guztietan. Hitz eta esamolde batzuk aurretik normalizatu eta araututa zeuden, baina nola esan zientziarekin lotutako hamaika hitz? Nola idatzi nazioarteko ekonomia jardunak ia eguneroko sortzen zituen termino berriak euskaraz? Nola izendatu zehatz-mehatz Olinpiadetakako kirol guztiak? Nola, azpiegitura berrien terminologia? Arau eredu hori hizkuntzaren baitatik sortzen da maiz, edo hizkuntzen arteko harremanetatik. Hori guztia errazagoa da bide luzea egina dagoenean, eta euskarak bide txikia egina zuen oraindik.

Eta *Egunkariaren Estilo Liburua* 1992an argitaratu zenean, beste

urrats bat egin zuen euskal prentsak. Esan daiteke euskal egunkariak arauemaile jokatu zuela zentzu askotan. Liburu hori, idazketa eta estiloa arautzeko funtsezko lan hori, bi oinarriren gainean idatzi zen. Alde batetik, argitasuna hobetsi zen oroz gain, eta horretarako euskararen barruan bilatu behar zela ondorioztatu zuten teknikariek. Bestetik, mailegukiko ardura ere asko zaindu behar zela erabaki zuten. Herri osora begira jarri ziren hitzak aukeratzen, eta batzuetan gaztelaniatik hartu zituzten, beste batzuetan frantsesetik, eta, bestee-tan, mailegu teknikoak utzi eta euskal hitz arrunt samarra hartu zuten eta, hedapen semantikoz, adiera teknikoak eman zitoten.

Nolanahi ere, idazkuntza argia eta zehatza, laburra, bizia eta erredundantziarik gabea behar zela erabaki



DEIA, 1979 maiatza 29, Iruñea

VEZCAYA

El CGV reconoce a la Comisión Representativa de Vizcaya

Probable remodelación de la asistencia psiquiátrica provincial

La Comisión Representativa de la asistencia psiquiátrica de Vizcaya ha tomado ya carta de naturaleza. El reconocimiento oficial de que fue elegido el pasado viernes por parte del director del Departamento de Sanidad y Seguridad Social del Consejo General Vasco señor Larrazaga, ha sido decisivo para la vida de esta entidad, que en tan breves meses de funcionamiento ha tenido que enfrentarse con la mala situación inherente por parte de los medios oficiales.

La Comisión Representativa, según se explicó en la reunión del sábado, anterior a la que dicha entidad celebró, tuvo una reunión el viernes por la mañana con el Director del Departamento de Sanidad del CGV, señor Larrazaga.

Ello significó el reconocimiento a nivel oficial —y con el consentimiento de la alta esfera de poder ejecutivo del CGV—, ya que el director de Sanidad no dio carta blanca para responsabilizarse del plan general o, mejor dicho, de la elaboración de las líneas maestras que han de regir la asistencia psiquiátrica coordinada a nivel de Vizcaya, en primer término y ya prevista en coordinación con las otras provincias, a nivel de todo el País Vasco en el futuro.

Y tal y como dijo el doctor Fernando Marigómez en la reunión de ayer, "a partir del viernes se ha desdoblado la situación en que los planes de Vizcaya son desconocidos. Ahora estamos en camino de hacer algo por nuestra iniciativa, de tener que adoptar formalmente las líneas ya marcadas por los institutos que actualmente se encargan del problema".



La reunión de la Comisión Representativa de asistencia psiquiátrica, celebrada ayer en el Colegio Oficial de Médicos, en su momento. Desde la izquierda: José María Gesto

Las unidades de Zamudio, tema a debate

Ya en la primera parte de la reunión, y también en el diálogo que surgió a continuación, se habló de los unidades que la Diputación vizcaína tiene en proyecto de construcción en Zamudio. Respecto a ello, la mesa que presidía la reunión manifestó que la Comisión del Interior de CGV estaba de acuerdo en la no construcción de las tres unidades de cama haber consultado con la asesoría de la Comisión Representativa. Al parecer, la corporación que se ocupa de ello, por parte de la Diputación, comete que

el proyecto debe ser llevado a término. En esta reunión, quedó en claro que una vez más, a fin de mejorar los estudios necesarios para el buen funcionamiento, dedicación a los momentos actuales, etc., etc., etc.

En la reunión quedó bien patente que la Comisión no está dispuesta a admitir una política de hechos consumados que grandes hipotecar la situación institucional psiquiátrica de Vizcaya. En la próxima reunión, que en principio ha sido fijada para el día 17 de junio, se tratará cuestiones de orden organizativo sobre cómo será la planificación institucional psiquiátrica de Vizcaya en el futuro.

zuten *Egunkariako* estilo ardura-dunek. Eta euskara idatzia ahazko euskaratik hurbiltzeko ahalegina egin behar zela nabarmendu dute gai honetaz kezkatu diren beste askok. Idatzia belarriaren arabera izan behar duela, idatzia ere *entzun* egiten baita. Ariketa gisa, idatzitakoa beren buruari irakurtzeko gomen-datzen zieten kazetari gazte guztiei. Belarrira ez bazuen ondo ematen, ez omen zegoen ondo idatzita.




EUSKAL IKUS ENTZUNEZKOAK ETA INTERNET

Euskal irrastien bidea, idatzizko komunikabideekin bezala, norbanakoen borondate askoren bultzadarekin egin zen, euskarak oso presentzia txikia izan zuelako Euskal Herriko irrati ia guztietan 80ko hamarkada arte. Salbuespen-tzat hartu daitezke nagusiki gaztelaniaz 50eko hamarkadan aieratzen ziren *Radio Euzkadi*-ren emisioak, erbesteko Eusko Jaurilaritzak sustatuta, eta Buffalotik (Wyoming, AEB) ia berrogei urtez Amerikako *Far West*era emigratutako artzaintzat lanean aritu zen euskarazko *Basque Program* (1956) izeneko irratiaren emanaldiak. 50eko eta 60ko hamarkadan hainbat herritan sortutako eliz emisoreetan euskara apurka erabiltzen hasi zen, baina erlijioarekin lotutakoak edo baserritarrei zuzendutako saioak ziren nagusiki.

70eko hamarkadan, ordea, eta prentsan euskarazko ekoizpenak ugaritzeko

sumatzen zen bultzadarekin ia batera, tokiko hedabideen aldarrikapena zabaldu zen, eta giro horretan sortu ziren *Radio Popular de Bilbao* (gerora *Bizkaia Irratia* bihurtu zena) irratiaren euskarazko saioak, eta *Radio Popular de San Sebastián* eta *Loiola* irratiak abiatutako *24 orduak euskaraz* kanpaina, euskal irratia legitimatzeko eta euskal hedabideen sistemaren beharra aldarrikatzeko. Euskararen ikuspegitik begiratuta, Loiola Irratia ere gakoa izan zen.

Urratsak urrats, interesgarriagoa, sendoagoa eta iraunkorragoa izan zen Ipar Euskal Herrian 80ko hamarkadaren hasieran sortu ziren *Gure Irratia* (1981), *Irulegiko Irratia* (1982) eta *Xiberoko Boza* (1982) irrastien esperientzia. Hiru irratioek euskaltzaleek bultzatu zituzten, atzean inolako enpresa egitasmo edo talde sendorik gabe, euskarari zentraltasuna eta nagusitasuna emateko



kontzientzia osoz. Euskarazko irakaskuntzan urrats handiak ematen ari zen, neurri batean ikastolaren ereduari jarraituz. Irakaskuntzan euskarazko sarea sortzeko guraso eta irakasle askoren neke eta ahaleginak iparrorratz bezala izan ziren Ipar Euskal Herrian ere euskal hedabideak nahi zituztenentzako. Orduko kazetari batek esan zuen bezala: "Ikastolek bidea erakusten dute. (...) Hori da azken hamar urteetako egitate handienetarik bat. Euskara euskaraz zaintzea eta zabaltzea; ximple da iduriz, baina hor du ekintza iraultzaile handia".

Bultzatzaile haiek egokiera baliatzen jakin zuten. 80ko hamarkadaren hasieran irrati libreen aldeko haizea barreiatu zen Frantzia osoan zehar, eta 1981ean Alderdi Sozialistak hauteskundeak irabazi zituenean, irrati estatalen monopolioa pitzatu eta irrati libreak legeztatzen zituen. Eta emisoreak leku guztietan altxatzen hasi ziren orduan. Dena libre zirudien, baso zabala. Lapurdiko kosta

inguruan, hau da, Ipar Euskal Herriko inguru populatuenean, *Gure Irratia* bultzatzen zuen euskaltzale talde batek baimena lortu zuen mendi kasko batean antena paratzeko, eta arazoak arazo, interferentziak interferentzia eta esperientziarik eza gora behera, 1981eko Gabonetan emisioak hasi ziren. Dena, euskaraz. Garai bertsuan sortu ziren, barnealdean, *Irulegiko Herri Irratia* eta *Xiberoko Boza*, hauek ere nagusiki euskaraz.

Azpimarratzekoa da irrati hauek sortzeko unean, Hego Euskal Herrian prentsa elebidunaren inguruan zeuden gogoeta berdinak egiten zihardutela bertako euskaltzaleek. Irratia euskaraz behar zutela, bestela, betiko eredu gehienez ere elebidunarekin, betiko topikoetan erortzen zelako informazioa: euskara bertsolariak, kantaldiak, mezak, nekazaritza eta artzaintzaren berri emateko zen; hiriarekin edo modernitatearekin lotutako berriak, berriz, frantsesez.

Gure Irratiarena jauzi handia izan zen bertako euskaltzaleentzat, onespen handi samarra lortu zuelako berehala. Sortu eta gutxira ordu kopuruak handitu zituen, eta entzuleen erantzuna ere oso ona izan zen. Lorpenen artean, gainera, lorpen soziologikoak ere jarri behar. Orduko hura martxan jarri zutenek gogoan dute irratia jende ezagun asko lehen aldiz euskaraz hizketan jarri zuela, eta hainbat eremutan punta puntako informazioa ematea lortu zuela.

Irulegi Irratiak, berriz, 1982ko urtarilean ekin zion seinalea igortzeari, barnealdeko etxalde batetik, hamabost boluntario eta soldatapeko lagun bakarrekin. Egunero ordu batez emititzen zuen, eta helburua ere garbi zuten bertako sustatzaileek: lehena eta garrantzitsuena euskaraz emititzea zen, eta bigarrena bertako jendeak balia zezan tresna bat sortzea.

Lapurdi barnealdea eta Nafarroa Beherea nagusiki landatik bizi den eremua da, eta bertako biztanleen arteko benetako harreman gune bilakatu zen irratia, egunerokotasunaren ispilu fidel samarra. Bertako esatari batek, handik urte batzuetara irratia ren ekarpenei buruz galdetu ziotenean, euskal hiztunen konplexua baztertzeko urrats bat izan zela esan zuen. "Gurasoen belau-naldietatik, beti buruan sarrarazi diete [bertako euskaldunei] euskara mintzaira minorizatua dela, baliorik gabea; baina irratitik egun guztiz euskaraz entzuteak, ofizialtasun bat ematen dio. Erakutsi

nahi izan dugu bizi eta komunikatzen ahal dela euskaraz".

Xiberoko Boza izan zen hirugarren irratia. Hura ere barnealdean, nekazaritza eta artzaintza giroko inguru menditsuan. Emisioak 1982ko irailean hasi ziren, Mauleko Udalak utzitako lokal batean, Gotaine-Irabarneko gaztelua-ren lehen solairuan hain zuzen. Aurreko bi irratiek zabalduetako ereduari jarraitu zion *Xiberoko Bozak* ere. Euskal kultura sustatzea zen helburu nagusia, baina Zuberoan egoera konplexuagoa zen Lapurdin edo Nafarroa Beherean baino. Arrazoi linguistiko, politiko, kultural eta soziologikoengatik, gainontzeko euskal lurraldeekin harreman gutxien daukan lurraldea da Zuberoa, eta hasieran beste bi irratietan baino gehiago erabili zen frantsesa, %40 inguru. Gero, portzentaje horiek euskararen alde emendatu ziren.

Tokian tokiko egoera ezberdinak gorabehera, hiru irratien proiektua komuna zela ikusirik, 1997an hiruen artean

Gaur egungo euskal ziberespazioaren erretratua bi faktore nagusik baldintzatzen dute: alde batetik hizkuntza gutxitu eta diglosikoa izatea, milioi bat hiztunera ere ez iristea, eta, bestetik, Euskal Herriko maila ekonomiko altua



Euskal Irratiak izeneko federazioa osatu zuten. 2001etik aurrera lau kide dira, Hendaiaiko *Antxeta Irratia* ere batu baitzen taldera.

Azken datuen arabera, federazioan soldatapeko 31 langile daude, eta ehunka laguntzaile. Emaizta ikusgarria izan arren, interesgarriena, beharbada, eze-rezetik sortzeko izandako gogoeta da. Hizkuntzaren berreskurapenerako komunikabideei aitortutako zentraltasuna eta garrantzia.

Ia Ipar Euskal Herriko hiru irrati hauekin batera, baina beste baldintza eta beste sorrera ezberdinarekin, Euskadi Irratia sortu zen. Beste baldintzak, bai, eta beste sorrera modua, bai, EITB egitasmo instituzionalaren baitan jaio zelako. Hasierak ez ziren errazak izan, irrati hura instituzionala eta orokorra izateko borondatearekin jaio zelako, alegia irrati nazionala 24 orduz eta hementxo eta kanpoko informazioez josia, baina egitasmo sendo eta estrategikoa

izateak ematen duen lasaitasun eta bermearekin, Euskadi Irratiak lortu du, denborarekin, euskal irrati entzunena eta sendoen izatea.

Telebista


Euskara, telebistan, lehen aldiz, 1965 eta 1966an Espainiako Telebistak eman zituen esku-pilota txapelketako finaletan agertu zen. Emankizunak espainieraz eta euskaraz igorri ziren, eta Jose Mari Iriondo kazetaria aritu zen euskaraz esatari moduan. Salbuespena izan zen, salbuespen txiki bezain esanguratsua. Handik urte gutxitara, 1971n, France 3 Frantziako telebista kate publikoan ordu eta laurdenerako magazina euskaraz prestatu zuten. Hilabeteko lehen eta hirugarren larunbatetan ematen zuten, arratsaldeko sei eta erdietan. Hogei urtez hori


izan zen euskal telesaio bakarra; hori, eta Espainiako telebistako *Telenor-te* saio erregionalean sartu zituzten hainbat elkarrizketa edo saio finkoak, horietako batzuk Iriondok berak pres-tatuak. Egoera ez zen batere aldatu Eusko Jaurlaritzak Euskal Telebista (ETB) kate publikoa sortu zuen arte.

Horregatik, ordura arte egindakoaren urritasuna ikusirik, esan daiteke euskal telebistagintzaren sorrera ETBren emisioekin hasi zela.

Kate publiko berria Francoren dikta-dura osteko lehen Eusko Jaurlaritzak onartu zuen, 1982an. Egitasmoak oihartzun handia izan zuen, sinbolikotasun handia zuelako, eta erakunde publiko batek lehen aldiz erakusten zuelako euskal hedabideak bultza-

tzeko asmo benetako eta sendoa. Sortzea arautzen zuen Legean, arrazoi tekniko eta politikoez gain, idatzita dago hedabideak hizkuntza eta kultu-ra sustatzeko daukaten garrantziaren inguruko pasarte bat. "Funtsezko herri zerbitzua dela aitortuz, lege honen gai diren gizarte adierazpideak, herritar euskaldunak argipide eta politikan esku hartzeko lehen-lehen mailako bide direnez eratzen dira, eta bai hezkuntzarekiko eta euskal kulturaren sustapen eta zabalkundea-rekiko gure erapidetzaren oinarritzko lankidetasun-tresna direnez ere, euskararen sustapena eta zabalkundea bereziki kontuan izanik eta, hori guzti hori, Autonomia Erkidego honetako herritarren eskubide eta izapideak behar bezala egiteratzeko eustazpi eta oinarri".





Orduko Kultura sailburu Ramon Labaie-
nek ere garbi asko zeukan zertarako zen
telebista publiko berria. "Gure lehenta-
sun nagusietako bat euskara babestea
eta bultzatzea zen, zeren eta, printzipio
bezala, argi baikeneukan euskararik
gabe ez zegoela Euskal Herririk. Argi
geneukan, halaber, ez bazen euskal ko-
munikabiderik sortzen euskarak ez ziola
bereari eutsiko. Hortaz, 1980an osatu
zen Eusko Jaurlaritzaren programan ja-
sota zegoen euskara babesteko sortuko
zen telebistaren asmoa".

Sorrera eztanda txiki bat izan zen euskal
kultur panoraman. Aurrekontu handiko
irradi-telebista publiko batek aukera
handiak zabaltzen zituen kultur eredu
propioak sortu eta ikus-entzunezkoaren
edukiak ordura arte ez bezala sortzeko.
Soziologikoki ere zerbait mugitu zuen

ikusleen artean. Hasieran, ekoizpen pro-
pioa eta nazioarteko telesaioak tarteka-
tu ziren —orain bezala—, eta AEBetako
telesaioetan beltz bat euskaraz hizketan
ikustea ezuste handi samarra izan zen
euskaldun askorentzat.

1983ko otsailaren 1ean lehen albiste-
gia aineratu zuen ETBk, eta polemikak
bidea egiten lagundu zion. Hasi eta
berehala, Espainiako telebistako bu-
ruek kontuak eskatu zizkieten Euskal
Telebistako arduradunei, haien ustez
albistegi horiek lokalak behar zutelako
izan. Hau da, ez zitekeen Espainiako
telebistaren lehiakide izan. Edo, behar-
bada, ez zitekeen benetako telebista
bat izan. Euskaraz, benetako telebista
bat? Euskaraz, espainieraz aritzen ziren
komunikabideekin lehiatu? Gehiegitxo,
beharbada, espainolaren hegemoniko-

tasuna buruaren muineraino sartuta zuten Espainiako agintarientzat.

Albistegiak ez ziren tokiko albistegi bihurtu, eta polemika antzuak ahaztuta, telebistak eremuak zabaltzen jarraitu zuen. Urte hartako apirilean, esaterako, euskarazko lehen filma eman zuen.

Kateak euskara eta erdara tartekatu zituen hasiera-hasieratik, baina 1986an gaztelaniazko bigarren katea sortu zuen erakunde publikoak, ETB2. Euskara lehen katean geratu zen. Kate berriaren sorrerak kritika ugari eragin zuen euskaltzaleen artean, askok uste baitzuten kate berriak kalte egingo zio- la euskararen gizarte-erabilerari, baina eredu hori finkatu eta sendotu baino ez da egin denborarekin. Egun, programazio eta egitura ezberdina dauka kate bakoitzak, nahiz eta baliabide asko partekatzen duten.

Telebista publikoaren alboan, eta tokiko prentsak izandako arrakastaren beroaldiaren epelean, tokiko telebista ugari garatu dira Euskal Herri osoan. Asko prentsako produktuarekin lotuta daude, eta horien artean nabarmentzeko modukoa da Hamaika Telebista proiektua. Nabarmentzeko modukoa, hainbat komunikazio talderen artean sortutako proiektua delako, helburua duena euskarazko telebista bultzatzea Euskal Herriko eremuan. Une honetan, Bilbotik emititzen du egunero, eta Donostian ere hasteko proiektua dauka.

Internet

Internet, edo, hobeto esanda, aitzin-in-ternet hura komunikaziobide azkarra eta orotarikoa izango zenik gutxi- ke uste zuten garaian, 1996an, hainbat aldizkaritan euskaraz ipuin erotikoak argitaratuta zeuzkan egile batek, Vicent Gil de Paulesek, narrazio bat jarri zuen sarean, paperean baino lehenago. *Goi- goñoei maittea-maittea* lan hori izan zen euskararentzako sarbide ofiziala, nahiz ustekabekoa, Interneten. Geroztik, hamaika ahalegin izan dira hizkuntza zaharrez teknologia berri-berrien- en aukerak baliatzeko eta, aurretik papera- rekin, soinuarekin edo irudiarekin egin zen bezala, ziberespazioaren tresna euskararen normalizaziorako eta sus- tapenerako erabiltzeko. Oraindik gaur egun, aukera hori ondo baliatzen ikas- ten ari dela esan daiteke, baina ikaraga- rri da egin dena. Euskaraz ekoizpenak, materiala, baliabideak eta informazio ugari aurki daiteke gaur egun Interne-





ten. Eta horren atzean, beti gertatu den bezala, aitzindari batzuk daude.

Sustatu.com webloga izan da bide horretan erreferentzietako bat. Ataria 2001eko azaroan sortu zen, Interneteko albistegi moduan, eta tokiko prentsan aitzindari izandako Goiena Komunikazio Zerbitzuak eta CodeSyn-tax Interneteko zerbitzu enpresak sortuta. Ez zen euskararen lehen bloga izan, baina bai lehenetako bat, eta izan zuen eraginagatik eta sortu zuen ereduagatik, esan daiteke leihor handi bat izan zela sarera euskaraz sartu ziren askorendako. Eta ideia horretatik beste ekimen asko ageri ziren. Gaur egun weblog kolektiboa da, eta artikulua nagusiak idazteko aukera irakurleen esku uzten du.

Sustatu baino lehen izan ziren beste ahalegin interesgarri batzuk. Esaterako, *Xuxen*, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Informatika Fakultateko informatikari euskaldunek sortutako zuzentzaile automatikoa. Horretara-

ko, hainbat lagunek hitzez hitz hartu zituzten euskal gramatika eta hiztegi guztiak, eta banan-banan egin zieten autopsia forma posible guztiei. Zuzentzailea mugarria izan zen, euskara informazioaren teknologia berrien munduan sartu zuelako, eta mugarria izan zen, era berean, erakutsi zuelako euskara teknologia berrietara egokitzeko moduko hizkuntza zela. Tresnaren erabilera asko zabaldu zen, tresna berez oso erabilgarria zelako, eta baieztatu daiteke asko lagundu zuela estandarizatu eta arautzeko prozesuan zegoen ortografia zuzena hedatzen.

1997an *Sareko Argia*, *Argia* astekariaren edizio digitala, eta *kaixo.com* ataria ere martxan ziren, eta urtebete geroago hasi zen Eusko Ikaskuntza kultur erakundea *Euskonews* astekari elektronikoa plazaratzen. Hirurak martxan daude gaur egun.

Nolanahi ere, sarrerak sarrera, eta ekimenak ekimen, aukera berri hori alferrik galtzen ari ote zen susmatu zuten teknologia berrien aukerak gehien ezagutzen zituztenek. 2004an egin zen Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresuan, euskal kazetaritza 70eko hamarkadaren amaieratik ezagutzen zuen kazetari batek alarma jo zuen. Egia zela, euskaldunok hedabideen arloan atzerapen historiko baten kontra borrokatu behar izan genuela beti, eta inguruko beste komunitateek baino beranduago hasiak ginela, baliabide urriagoz eta ahal bezala ahal zena egiten. Baina Internetekin bertsio hori

ez zela horren sinesgarria. "Lasterketa horretan besteekin bateratsu abiatzeko aukera izan genuen. Ezin, beraz, atzerapen kronologikorik aipatu. Hizkuntza gutxitua izatearen ondorio omen den baliabideen urritasunari dagokionez, ezin esan euskarri berri horretan dirua beste euskarrietan bezain faktore erabakigarria denik. Salbuespenak salbuespen, benetan patetikoa iruditzen zait hedabide tradizionalak Interneten egiten dutena: paperean argitaratutakoa sareratu, aski modu erabilkaitzean maiz; paperean argitaratzeko luzeegia dena (txostenak, agiriak...) toki mugarik gabeko webetan ipini; eztabaida gaiak planteatu; eta ezer gutxi gehiago".

Josu Landak ohiko hedabideak sarean sartzeko egiten ari ziren lana zuen go-goan. Baina beharbada interesgarriena ez zegoen hor, Interneten bertan eta Interneterako propio sortzen ari zen horretan baizik. Eta hor blogosferaren fenomenoak azpimarratu behar da. 2001ean *Sustatu* sortu zenetik blogak sekulako hazkundera izan zuten, eta blog komunitateak sortu ziren, esaterako *Eibar.org*, *Goiena.net* edo *Uztarria.com*, zeintzuen inguruan hainbat lagunek beren blogak sortu baitzituzten. Baina benetako eztanda 2005etik aurrera gertatu zen, lehen blog plataforma automatikoak agertu zirenean: *Blogari.net*, *Blogak.com* eta *Mundua.com*. Eta, aparteko ikastarorik edo prestakuntzarik izan gabe, edonork bere bloga diseina zezakeenez, blogak asko ugartu ziren.

Handik bi urtera, 5.400 blog inguru zeuden martxan, eta haietarik hiru mila inguru bizirik zeuden, sarrerak eta erantzunak irakurgai.

Gaia aztertu duten ikertzaileek diotenez, gaur egungo euskal ziberespazioaren erretratua bi faktore nagusik baldintzatzen dute: alde batetik hizkuntza gutxitu eta diglosikoa izatea, milioi bat hiztunera ere ez iristea, eta, bestetik, Euskal Herriko maila ekonomiko altua, Europako batez bestekoa baino pixka bat altuagoa baita. Lehenengoak euskara hedabide berrietan erabiltzea eragozten du; bigarrenak, berriz, bultzatzen. 2003an egin zen ikerketa baten arabera, euskara 40. tokian zegoen munduan orrialdeen kopuruari dagokionez. Azken azterketek diote 34. postuan dagoela. Eusko Jaurlaritzaren estatistiken arabera, Euskal Autonomi Erkidegoan gorako joera erakusten dute euskarazko orrialdeetarako sarrerek, 2004an %15 eta 2008an %24 izan ziren eta. Portzentaje horiei begiratuz gero, ondorioztatu daiteke euskaraz sartzaren diren lagunen kopurua, hiztunekiko, ingelesez sartzaren direnekiko baino handiagoa dela.

Gehien bisitatutakoen artean *berria.info* dago, euskal egunkari nazional bakarraren atari elektronikoa. Egunero 13.000 bisitari inguru ditu. *Eitb.com* atariaren euskarazko bertsioak 7.000 bisitari inguru ditu, eta ondoren datoz *Elhuyar*, *Argia* eta *Hitza* argitalpenen edizio elektronikoak.



GAUR EGUNGO EUSKAL KOMUNIKABIDEAK

Azken bi hamarkadatan, euskal komunikabideak historian inoiz ez bezala loratu dira, eta gaur egun inoiz ez bezalako aniztasuna dago prentsa idatzian zein ikus entzunezkoetan, eta, zer esanik ez, Interneten: informazio atari orokorrak, norbanakoenak, espezializatuak eta atalkakoak. Badira komunikabide instituzionalak, kultur elkarteek bultzatutakoak, enpresa proiektuak, eta tokian tokiko egitasmoak. Batzuk zeharo egonkortuta daude, eta erreferentzia dira bakoitza bere esparruan. Beste batzuek arazo larriak dituzte aurrera egiteko, eta diru laguntzen menpe bizi dira. Baina kirol egunkari bat falta da, esaterako; eguneroko gehiago falta dira, eta aldizkari espezializatu gehiago. Falta, asko falta da. Eta, hala ere, asko egin da.

Ondoko zerrenda honetan ez daude denak, baina dagoenaren argazki nahiko osatua da.

Prentsa idatzia

Egunkariak

- **Berria:**

Nazio egunkari bakarra. 2003an sortu zen, Espainiako Guardia Zibilak *Egunkaria* itxi eta hiru hilabetera. Egunero argitaratzen da, astelehene-tan salbu, eta ordezkariak ditu Euskal Herriko hiriburu guztietan. Imprimatze zentroa eta banaketa sare propioa dauka.

- **Hernaniko Kronika:**

2000. urtean kaleratzen hasi zen, eta Hernaniko herri inguruko kronikak zabaltzen ditu egunero. Bertako Dobera Euskara Elkarteak argitaratzen du.



- **Hitzak:**

Tokian tokiko egunkariak. Egunkaria argitaratzen zuen enpresa bultzatzen hasi zen, eta Tolosaldean, Lea-Artibai, Urola Kosta, Goierri, Oarsoaldean eta Donostian kale-ratu zituen. 45.000 aleko tirada izatera iritsi zen. Gaur egun, *Berrria* egunkariko tokiko informazio gune bilakatu dira gehienak.

Aldizkariak

Informazio orokorrekoak

- **Argia:**

Euskal prentsaren argitalpen iraunkorrena eta sendoenetako bat. Astero kaleratzen da.

- **Herria:**

Ipar Euskal Herrian banatzen den astekaria.

- **Aldaketa 16:**

Cambio 16 Madrileko enpresak kaleratzen duen euskarazko argitalpena. 2003an argitaratzen hasi zen, eta informazio orokorra eta iritzia ditu oinarritzat.



Zientzia, medikuntza eta teknologia

- **Elhuyar:**

Zientzia eta teknologia lantzen duen aldizkaria. 1974an sortu zen, eta hilerok kaleratzen da.



- **Aldiri:**

Arditekturaren inguruko aldizkaria. Hiru hilabeteetan behin kaleratzen da.

- **Ekaia:**

Euskal Herriko Unibertsitateko zientzi eta teknologi aldizkaria.

- **Lanabesa:**

Aldizkari ekonomikoa, enpresaren munduarekin lotuta.

Giza eta gizarte zientziak

- **Jakin:**

Kultur agerkaria. 50eko hamarkadan sortu zen, baina 70eko hamarkadan zeharo zaharberritu eta itxuraldatu eta kultur agerkari bilakatu zen.

- **Larrun:**

Argia aldizkariarekin batera kalera-tzen den pentsamendu aldizkaria. Hilabetero argitaratzen da.

- **Uztaro:**

Udako Euskal Unibertsitateak kalera-tzen duen Giza eta Gizarte Zientzien aldizkaria.

- **Kondaira:**

Historia aldizkari elektronikoa.

- **Gogo:**

Euskal Herriko Unibertsitateko hizkuntza, ezagutza, komunikazio eta ekintzari buruzko aldizkaria.

- **Eleria:**

Euskal Herriko legetarien aldizkaria. 1996an sortu zen.

- **Bat:**

Soziolinguistika aldizkaria.

Literatura eta kultura

- **Hegats eta Kalegats:**
Euskal Idazleen Elkartek argitaratzen dituen literatura aldizkariak.
- **Maiatz:**
Ipar Euskal Herriko literatur aldizkaria.
- **Karmel:**
Hiruhilabetekaria, kultura, eliza gaiak eta iritzia lantzen dituena.
- **Bertsolari:**
Bertsolaritzaren inguruko aldizkaria.
- **Entzun:**
Musikari buruzko aldizkaria.
- **Nabarra:**
Kultur aldizkaria.
- **Gaur 8:**
Astekaria, informazio orokorra eta kulturari buruzko gaiak jorratzen dituena. Gara egunkariarekin banatzen da.
- **Erlea:**
Literatura aldizkaria, Euskaltzaindiak argitaratzen du.

Hezkuntza, Irakaskuntza eta Hizkuntza

- **Aizu!:**
Helduen alfabetatze eta euskalduntzerako AEK erakundeak karrikartzen duen hilabetekaria.
- **Administrazioa euskaraz:**
Administrazioa euskalduntzeko elkarteak argitaratzen duen aldizkaria.
- **Euskararen berripapera:**
Euskalgintzaren eta euskararen normalizazioaren alorrean sustatutako ekintzen berri emateko Eusko



Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kaleratzen du.

- **Euskera:**
Euskaltzaindiaren agerkaria.
- **HABE:**
Helduen alfabetatze eta euskalduntzea sustatzeko HABE erakundeak kaleratutako aldizkaria.
- **Hik hasi:**
Irakaskuntzaren inguruko aldizkaria
- **Litterae Vasconicae:**
Euskal hizkuntzazko eta literaturazko ikerlanak argitaratzeko hizkuntza arloko aldizkaria.
- **Senez:**
Itzulpengintzari buruzko aldizkaria.
- **Tantak:**
Euskal Herriko Unibertsitateko hezkuntza aldizkaria .
- **Hizpide:**
Euskalduntze eta alfabetatzearen aldizkaria, HABE erakundeak argitaratuta.
- **Xabiroi:**
Komiki aldizkaria, Euskal Herriko Ikastolen Federakundeak argitaratuta.

Aisia, bidaiak, kontsumoa

- **Nora:** Aisia eta kultura aldizkaria. *Berria* egunkariarekin batera banatzen da.



- **Aisia biziz:**
Aisialdiaz gozatzeko aldizkaria.
- **Zazpi haizetara:**
Bidaia aldizkaria.
- **Eroski:**
Kontsumoari buruzko aldizkaria.

Tokiko informazioa

- **Aikor** (Txorierri, Bizkaia)
- **Aiurri** (Beterri, Gipuzkoa)
- **Aldaize** (Idiazabal, Gipuzkoa)
- **Anboto** (Durangaldea, Bizkaia)
- **Artzape** (Getaria, Bizkaia)
- **Baleike** (Zumaia, Gipuzkoa)
- **Barren** (Elgoibar, Gipuzkoa)
- **Begitu** (Arratia, Bizkaia)
- **Berton** (Mahatserri, Bilbo, Bizkaia)
- **Danbolin** (Zestoa, Gipuzkoa)
- **Drogeteniturri** (Ermua-Mallabia, Bizkaia)
- **Eta Kitto!** (Eibar, Gipuzkoa)
- **Galtzaundi** (Tolosa, Gipuzkoa)
- **Gaztezulo** (Donostia, Gipuzkoa)
- **Geu** (Gasteiz, Araba)
- **Goienkaria** (Debagoiena, Gipuzkoa)
- **Gauixe** (Sakana, Nafarroa)
- **Kalaputxi** (Mutriku, Gipuzkoa)
- **Karkara** (Aia-Orio, Gipuzkoa)
- **Karrika** (Iruñerria, Nafarroa)
- **Mailope** (Araitz-Betelu, Larraun eta Lekunberri, Nafarroa)
- **Noaua!** (Usurbil, Gipuzkoa)
- **Otamotz** (Urretxu-Zumarraga, Gipuzkoa)
- **Pil-pilean** (Soraluze, Gipuzkoa)
- **Prest** (Deustu, Bizkaia)
- **Pulunpe** (Ultzama, Anue, Odieta, Atetz, Imotz, Lantz eta Basaburua, Nafarroa)



- Ttipi-Ttapa (Bidasoa, Nafarroa)
- Txintxarri (Lasarte-Oria, Gipuzkoa)
- UK (Uribe Kosta, Bizkaia)
- Uztarria (Azpeitia, Gipuzkoa)
- Xaguarre (Zerain, Gipuzkoa)
- Xuka (Nafarroako Euskarabidea zerbitzuak argitaratutako aldizkaria)
- Txolarre
- Bizkaia Irratia
- Arrate Irratia
- Euskalerria Irratia
- Esan Erran Irratia
- Xorroxin
- Beleixe
- Karrape
- Aralar Irratia

Irratiak

- Euskadi Irratia
- Bilbo Hiria Irratia
- Gure Irratia
- Irulegi Irratia
- Xiberoko Boza
- Antxeta Irratia
- Oñati Irratia
- Arrasate Irratia
- Zirika
- Oiartzun



Telebistak

- EITB
- Hamaika Telebista
- Tokiko Telebistak

ZK VNTZA

HIZK VNTZA



SINTESIA: GAKO BATZUK

Euskarak ez du inoiz egoera pribilegiaturik izan. Ez da hizkuntza hegemonikoa izan, ez da hizkuntza prestigiotsua izan, ez ditu dirua edo gobernuak bere alde izan, ez du babestuko zuen estaturik izan, ez du literatura indartsurik izan, ez du izan. Baina XIX. eta, batez, ere XX. mendean, euskaltzaleak ohartu ziren hizkuntzaren garrantziaren kontzientzia osoa hartzen ez bazuten, hizkuntzarenak egingo zuela. Eta, hizkuntzarekin batera, herria galduko zela. Sentimendu horrek bultzatu zuen hizkuntzaren batasunean, irakaskuntzan edo hedabideetan eragiteko XX. mendearen 60ko hamarkadatik aurrera jaio zen mugimendu indartsua.

Hedabideena izan zen bulkada horietako bat. Hor ere norbanakoen ekimena izan zen, gehienetan, gidari: euskaltzale taldeak, elkarte txikiak, lagun taldeak. Denen artean egindako bidea itsumustukoa izan zen, askotan. Baina talaia zabalago batetik

begiraturaz gero, ikusten da intuizio batzuk egon zirela, horien arabera egin zela bidea, eta onuragarriak izan direla.

Eta ideia garbi batzuk atera daitezke, beste hizkuntz komunitateentzako baliagarriak izan daitezkeenak:

- Hedabideen garrantzia funtsezkoa da hizkuntzen berreskuratze prozesuetan, leiho zabal bat direlako: hedabideen bidez zabaltzen dugulako gure mundua, eta mundua ere leiho horretatik sartzen delako.
- Egunkariak, telebistak, irratiak, errealitatearen interpretazio periodiko bat baino zerbait gehiago dira: errealitatearen eraikuntza dira, eraikuntza bateratua. Beraz, garrantzitsua da hizkuntz komunitate bakoitzak eraikuntza horretan igeltseroak edukitzea, bakoitzak erabaki dezan nolako etxea altxatu nahi duen.

-
- Hedabideek aukera ematen diete hitzunei beren buruaren errepresentazio publikoa kontrolatzeko, komunitate bereko beste kideen ideiak, ikuspegiak eta arazoak ezagutzeko, eta Gu-aren ideia komunitate horren baitan txertatzeko. Hedabideak, beraz, hizkuntza garatzeko gune apartak dira, onerako eta txarre-rako, hizkuntzaren finkapenerako zein degradaziorako. Estandarizazio prozesuetan aurrera egin nahi duten hizkuntz komunitateentzat, beraz, ezinbestekoak dira.

- Komunitate txikien menpekotasuna eta asimilazioa areagotu egiten da kultura horren berri hizkuntza hegemonikoen bidez eman nahi denean, eta, gaur egun, hizkuntza txikien etorkizuna komunikabideen esku etorriko bada, komunikabide eraginkorretan pentsatu behar da. Interneten, esaterako.

- Hedabideak, gainera, funtsezkoak dira hizkuntza arautzeko, trinkotzeko eta sendotzeko. Esparru ezberdinetan mota guztietako gaiak komunikatu behar dituen hizkuntzak etengabeko doikuntza behar du eta, ondorioz, hedabideak hizkuntza garatzeko gune apartak dira. Esan daiteke hedabideak direla hizkuntzaren maisu nagusiak, eta baldin eta egia bada kultura garrantzitsuagoa dela herri moderno baten jarraipena ziurtatzeko edozein armada baino, egia da, halaber, hizkuntza ezegonkor baten gainean ezin dela kultura egonkorrik

eraiki. Hizkuntzari egonkortasun hori ematearen ardura nagusienetakoa hedabideek daukate.

- Hedabideetan erabiltzen hasi zenean, euskarak oso gutxitan gainditu zuen balio sinbolikoa, interes politikoen menpe egon zelako askotan. Soilik euskal hedabideak sendotzen hasi eta bide beregaina egiteari ekin ziotenean, orduan hartu zuen euskarak espainolaren edo frantsesaren estatusa komunikabideetan. Soilik orduan hasi zen hizkuntza hegemonikoei omen zegokien tokia hartzen.

- Duela hogeita hamar bat urte, funtsezko galderari erantzun behar izan zioten Euskal Herriko hedabideek: zer da euskal hedabidea? Elebitasuna bide faltsua zela ondorioztatu zen, euskara bigarren mailan geratzen zelako beti, eta, beraz, euskal hedabideak euskaraz dihardutenak direla eta euskal komunitateak euskara hutssezko eredu autozentratuak behar zituela erabaki zen; hau da, hizkuntz komunitatearen bihotzera begira lan egingo zuen prentsa, irrati eta telebista behar zirela.


- Orduan sortutako komunikabide gehienak, direla egunkariak, aldizkariak edo irratia, herri ekimenak sortu zituen, Eusko Jaurlaritzak sortutako EITB salbu. Frogatu zen, horrela, batzuetan nahikoa dela kontzientzia indartsua hedabideak sortzeko. Horretarako enpresa eredu ezberdinak landu behar izan ziren,

eta militantzia eta profesionaltasuna nola uztartu izan zen erronka handienetako bat.

- Tokiko prentsak sekulako garapena izan du azken bi hamarkadotan. Euskararen normalizazioaren alde lan egiten duten kultur elkarteek sortutako hedabideak dira, gizarte ekimenak jaiotakoak beraz. Inguru txiki bati begira pentsatuta daude: bertan eta bertakoentzat. Premise-
- Hizkuntza idatzizko tradizio handirik ez duten hizkuntz komunitateentzat, Internetek aukera handiak eskaintzen ditu. Ez zaio trenari gelditu gabe pasatzen utzi behar: norbere hizkuntzak hartzen ez dituen eremuak ingelesak, espainierak edo beste hizkuntza hegemoniko batek hartuko ditu.

BIBLIOGRAFIA

- *Euskal Prentsaren sorrera eta garapena* (Javier Diaz Noci, 1995)
- *Bi begiratu euskarazko kazetari hizkerari* (Jon Sarasua, 1996)
- *Masa komunikazioaren funtzio soziala* (J. Basterretxea, 1999)
- *De Gutenberg a Internet, una historia social de los medios de comunicación* (Briggs eta Burke, 2002)
- *Bidegorriak hizkuntzentzat* (Aitor Zuberogoitia, 2005)
- *Minority Language Media*
(Mike Cormack eta Niamh Hourigan, 2007)
- *Euskal Herriko prentsa, XVIII. mendetik 1945era*
(M. Gonzalez, 2008)
- *Masa-komunikaziotik Informazioaren gizartera*
(Lierni Alkorta eta Aitor Zuberogoitia, 2009)
- *Comunicación y poder* (Manuel Castells, 2009)
- *Hedabideak euskaraz* (J. Amezaga, E. Arana eta P.Azpillaga, 2010)



Garabide Elkartea